

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2020ko azaroa / 310. zenbakia

www.oñati.eus  



Izan Ahobizi, izan Belarriprest!

Euskararen erabilera areagotzeko asmoz, azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo den Euskaraldian parte hartzeko deia luzatu dute

EUSKARALDIAN

parte hartzeko deia



Herritarren hizkuntza ohiturak aldatu eta euskararen erabilera areagotzeko asmoz, azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo den Euskaraldian parte hartzeko deia luzatu dute.

IZAN BELARRIPREST, IZAN AHOBIZI!

Hemen da EUSKARALDIA, herritarren hizkuntza ohiturak aldatu eta euskararen erabilera areagotzea helburu duen Euskal Herri mailako ariketa erraldoia. Azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egingo da aurtengo Euskaraldia, 'Gehiago, Gehiagorekin, Gehiagotan' lelopean.

ARIGUNEAK

Aurtengo Euskaraldiak kontzeptu berri bat ekarri digu: *Ariguneak*. Uneoro euskaraz aritzeko aukera bermatzen duten guneak dira. Arigune bakoitzeko kideek modu kolektiboan egingo dute hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa, denak direlako gutxienez euskara ulertzeko gai. Oñatiri dagokionez, 40 entitatek eman dute Euskaraldian parte hartzeko izena, eta 120 arigune sortuko dituzte, 563 lagunengana parte hartzearekin.

Ametsa litzateke Oñati osoa izatea 'Arigune', horrek esan nahiko lukeelako oñatiar guztiek gutxienez euskaraz ulertzeko gaitasuna dutela, eta bermatuko lukeelako edonon, edonorekin eta edozein egoeratan euskaraz egiteko benetako aukera izatea. Eta, hain zuzen, ezagutze unibertsal hori lortzeko lagungarri izan nahi du Euskaraldiak.

AHOBIZI EDO BELARRIPREST

Horregatik, Euskaraldian parte hartzeko deia luzatu die herritarrei Oñatiko Euskaraldiko Batzordeak. Entitateek izena eman ostean, norbanakoen txanda da orain. *Ahobizi* edo *Belarriprest* rola aukeratu eta ohitura berriak praktikan jartzeko gonbita luzatu dute, poliki poliki Oñati osoa 'Arigune' erraldio bihurtzeko. Beraz, azaroaren 20tik abenduaren 4ra paparrean txapa ipini eta egin dezagun euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan.



INFORMAZIOGUNEAK

Covid-19a dela eta, aurtengo izen-ematea modu elektronikoan egitea lehenetsi da **euskaraldia.eus** webgunearen bidez. Baina, horrez gain, informaziogunea ere ireki du Oñatiko Euskaraldiko Batzordeak, herritarrek izan ditzaketela zalantzak argitu eta izena ematen laguntzeko. Astelehen eta asteazkenetan (18:00-20:00) egongo da zabalik informaziogunea Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta, 18-behea). Euskaraldiko materiala (poltsak, banderolak...) ere salgai egongo da, eta bertan banatuko dituzte **ahobizi** eta **belarriprest** txapak, azaroaren 2tik aurrera.

AHOBIZI



Ahobizi rolak **KONPROMISOA** eskatzen du:

- Nire hizkuntza ohiturak aldatzeko.
- Lehen hitza beti euskaraz egiteko, baita ezezagunekin ere.
- Ulertzen duten guztiei euskaraz egiteko, nahiz eta solaskideak gazteleraz erantzun.
- Nik euskaraz bizi nahi dut ahal dudan momentu guztietan

BELARRIPREST



Belarriprest rolak **KONPROMISOA** txikiagoa eskatzen du:

- Nire gaitasun eta aukeren arabera erabakiko dut noiz eta norekin egin euskaraz.
- Beti ez dut euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin.
- Ezezagunekin euskaraz egitea zail egiten zait batzuetan.
- BAINA ulertzen dut, nahi dut jendeak niri euskaraz egitea eta prest nago horiekin euskaraz egiteko.

➔ AHOBIZI EDO BELARRIPREST IZANGO DIRA

MIREN PALACIOS
AHOBIZI



Euskara asko maite dudalako parte hartuko dut Euskaraldian. Barru-barruan sentitzen dudana gauza bat da. *Berbalagun* taldeetan ere banabil, euskara praktikatu nahi dutenei laguntzen. Gure esku dagoena egin behar dugu euskara ikasi nahi duen jendea laguntzeko. Denok egin behar dugu ahalegina gure hizkuntzaren alde.

GEMMA MAIZTEGI
BELARRIPREST



Ikasketak gazteleraz egin nituen eta beti eduki izan dut euskara ondo ikasteko gogoia, baina urte askotan ama zaintzen egon nintzen eta ez neukan astirik. Duela bi urte eman nuen izena euskaltegian eta oso gustura ari naiz, eta Euskaraldian ere parte hartuko dut. Lanean saiatzen naiz lehen hitza beti euskaraz egiten.

PILI IDOIA
AHOBIZI



Berbalagun taldeetan ere banabil, euskara praktikatu nahi dutenei laguntzen, eta Euskaraldian parte hartzea ere garrantzitsua iruditzen zait. Euskaldunok saiatu behar dugu lehen hitza beti euskaraz egiten, inguruko jendea konturatu dadin. Pena ematen dit euskaraz dakien jendea gazteleraz entzutea. Guztion beharra dauka euskarak.

AINHOA SERNA
BELARRIPREST



Lan arrazoiengatik albo batera utzita eduki dut euskara azken urteotan, baina orain berriro heldu diot. Euskaltegian eta mintzapraktika taldeetan ere ari naiz, beldurra galdu nahian, eta Euskaraldia ariketa oso interesgarria da gure hizkuntza ohiturak aldatzeko. Denok jarri behar dugu gure alea euskararen alde, galdu ez dadin.

CAIXABANK
ARIGUNEA



Caixabank-en Oñatiko bulegoko langileek ere bat egingo dute Euskaraldiarekin. Langileetako bi euskaldun zaharrak dira eta bestea ikasten ari da, eta konpromiso sendoa dute euskal kulturaren oinarri sendoa den euskararekin. "Gure helburua da bezeroekiko eguneroko harremanean gero eta gehiago erabiltzea euskara eta denon artean euskararen erabilera sustatzea eta gure hizkuntza babestea" adierazi digu Miriam Odriozolak.

ULMA Architectural Solutions
ARIGUNEA



Ulma Polimerok ere (Ulma Taldeko gainerako negozioek bezala) bat egingo du Euskaraldiarekin. Bost *Arigune* identifikatu dituzte enpresan eta datozen egunetan zehaztuko dituzte konpromisoak. "Euskara gure baloreetako bat dela kontuan hartuz, uste dugu egin beharreko ariketa bat dela" adierazi digute Motibazio taldekoek. Gainera, *Ahobizi* eta *Belarriprest* izango direnei zuzendutako formazio saioak egingo dituzte Ulma Taldean.

Urte askotan zuekin

☎ 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Jaione San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI





► Udal ordezkari politiko eta teknikoak 2020-2021 ikasturteko Jabetze Eskolaren aurkezpen ekitaldian



Azaroan hasi eta ekainera bitartean 13 ikastaro eta 5 hitzaldi-solasaldi antoaltu dira Emakumeentzako Jabetze Eskolaren baitan. Ondoko QR kodean kontsulta dezakezu egitarau osoa.



EMAKUMEENTZAKO JABETZE ESKOLA

2020/2021 ikasturteko programa aurkeztu du udalak eta herriko emakume guztiei luzatu die bertan parte hartzeko gonbita

Berritasun ugarirekin dator aurten Emakumeen Jabetze Eskola. Aurreko urteetan seihileko programaren formatuan antolatu da, baina aurten ikasturte osorako egitaraua prestatu dute, erreferentzialtasunean eta jarraikortasunean irabazteko asmoz. Eta bigarren nobedade nagusia zera da, espazio edo gune egonkor bat egongo dela ikasturte osoan, emakumeen ezinegonak azaldu eta beraiek proposatutako gaien inguruko hausnarketa eta lanketa egiteko, dinamizatzailerik baten laguntzarekin. Bidebarrieta kaleko 18an dagoen Euskaldun Berria gelan egongo da gune hau, eta ostegunetan egongo da zabalik (18:00-20:00).

Guztira 13 tailer-ikastaro eta 5 hitzaldi-solasaldi antolatu ditu udaleko Berdintasun sailak, herriko zenbait eragilarekin elkarlanean. Ondoko QRan edo udalaren webgunean kontsulta daiteke egitarau osoa. Egitarau zabala eta aberatsa da, arlo eta interesgune ezberdinak jorratzen dituen. Horregatik, udalak herriko emakume guztiei luzatzen die Jabetze Eskolan parte hartzeko gonbita. Ekintzak aurrez aurrekoak izatea lehenetsiko dute, baina bizi dugun osasun larrialdi egoera kontuan hartuz, online egiteko aukera ere ez da baztertzeko. Edukiera ere unean uneko egoera eta segurtasun neurrietara egokituko da.

Jabetze Eskola emakumeen topagunerako, eztabaidarako, formaziorako eta saretzerako foro irekia eta anitza da. Autonomia eta konfiantza indartuz, errealitatea ikuspegi feminista batetik aztertu, eta berau aldatzeko tresnak eskuratzea helburu duen espazioa. Azaroan martxan jarriko diren ikastaroen berri jaso dugu ondorengo orrietan.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



» Emakumeek
dituzten kezka
eta ezinegonei
erantzuna
ematen saiatuko
gara, taldearen
babesean, elkarri
lagunduz eta
elkarrengandik
ikasiz

Emakumeen topaketarako ESPASIO IRAUNKORRA

Hauxe da Jabetze Eskolak ikasturte honetan dakarren berritasun nagusia: gune edo espazio egonkor eta iraunkor bat, ikasturte osoan zehar mantenduko dena (azaroak 19 - maiatzak 27), emakumeak elkartu, beraien ezinegonak partekatu eta egoki irizten dioten gaiak jorratu ahal izateko.

Bidebarrieta kaleko 18an dagoen Euskaldun Berria gelan egongo da espazio hau, eta ostegunetan (18:00-20:00) egongo da zabalik. Gune irekia izango da, hau da, ikasturteko edozein unetan eman ahal izango da izena bertan parte har-tzeko. Gainera, dinamizatzaile bat ere izango du espazio honek. *Ediren Osasun Kooparatiba* elkarteko Susana Martinez izango da. Gizarte hezitzailea da bera, berdintasun gaietan aditua eta baita emakumeen kontrako biolentzia kasuetan esku-hartzen ere.

Martinezek badu eskarmenturik emakumeen topaketarako espazioak dinamizatzen. "Hainbat herritan izan ditugu esperientziak. Urdulizeko Emakumeen Etxean, adibidez, 12 urte daramatzagu eta oso esperientzia aberasgarria izan da". Horregatik, Oñatiko emakume guztiei luzatzen die espazio honetara bazteko deia.

ESPASIO INTIMO ETA SEGURUA

Lasai egoteko, lasai hitz egiteko eta inguruan gertatzen diren gauzen inguruan gogoeta egiteko espazio seguru eta intimoa izango dela dio Martinezek; "han esandakoa han geratuko da, horrek segurtasuna ematen digulako askatasunez adierazteko gure sentipenak".

Bertara hurbiltzen diren emakumeek beraiek markatuko dute espazioaren as-teroko dinamika. "Helburua ez da hitzaldi bat entzutea" azaldu digu Martinezek; "emakumeek beraiek esango dute zein diren euren kezka, zertaz berba egin nahi duten, eta zertarako baliatu nahi duten espazio hori, eta saiatuko gara taldean gai horiek lantzen, elkarri laguntzen eta elkarrengandik ikasten".

Elkarren babesean, norberaren auto-ezagutza eta auto-baieztapenean sakontzea, eta aldaketarako tresnak eta gakoak lantzea da, azken batean, helburua. "Besteentzat izateari utzi eta norberaren bizitzaren subjektu bihurtzea".

Modu ludikoan eta bizipenetan oinarrituta lan egitea proposatzen du Marti-nezek. "Teknika psiko-dramatikoa erabili ohi dut nik; hau da, eguneroko espe-rientziak eszenifikatuz abiatuko dugu ikasketa prozesua, jarduera praktiko eta parte-hartzaileen bidez, esperimentatuz eta dibertituz, horixe baita kontzeptuak barneratzeko modurik egokiena". ■



Irakurketa ZIKLOA

Sortzez perutarra, baina Bergaran bizi den Luciana Alfaro gidatutako irakurketa zikloa antolatu da Jabetze Eskolaren baitan. Hiru astean behin elkartuko dira, aurrez irakurritako testu feministen inguruan eztabaidatu eta gogoeta egiteko.

'FEMINISMOAK BAZTERRETATIK' da zikloaren izenburua, eta, hain zuzen, feminismoaren dinamika zentral eta hegemonikoetan egon ez diren aktibista beltz, chicana eta indigenen pentsamenduak eta bizipenak aztertuko dira, generoaz gain bestelako zapalkuntza sistema batzuk (sexismoa, arrazismoa, klasismoa...) aztertzeko.

Dominazio edo menperatze sistema hauen inguruan irakurri eta taldean gogoeta egiteko denbora pittin bat hartzeko prest dauden emakume guztiak gonbidatzen ditu Alfaro zikloan parte hartzera.

Gizarte langilea da Alfaro, herrialde azpigaratuekiko kooperazioa eta faminismoa nahiz genero gaietan aditua, eta era honetako txokoak dinamizatu izan ditu Donostian eta Arrasaten. ■

» Aktibista feminista beltz,
chicana eta indigenen
testuen bidez gogoeta
egingo dugu sexismoaz,
arrazismoaz, klasismoaz...



» Orain arteko ikastaroetan gauza interesgarriak sortu izan dira. Jendeak eskertu egiten du formatu hau. Esperientzia eta feedbacka oso positiboak izan dira

Musika eta ahalduntzea OLATZ SALVADORREN ESKUTIK

Olatz Salvador kantautore eta musikari donostiarrak gidatuko du 'Musika eta Ahalduntzea' izeneko ikastaro-tailerra. Lau orduko (10:00-14:00) hiru saio izango dira (azaroak 28 eta abenduak 12 eta 19) eta musikariak berak azaldu digu zein den helburua. "Emakumeontzat espazio seguru bat sortzea da helburua, gure sormena eta musikalitatea konplexurik gabe landu ahal izateko. Kantu bat sortzetik berau taularatzeraino behar den ahalduntze prozesu hori kolektibizatzea. Hau dena, beti, gozamenetik eginda eta bakoitzak heldu nahi duen lekura iritsita, inor ezertara behartu gabe".

Izena ematen duten emakumeen ezaugarri eta beharretara egokituko omen da ikastaroa. "Lehen saioan jendea zertara datorren jakitea gustatzen zait, zein diren beraien espektatibak eta nondik lan egin nahi duten. Baina, oro har, musika panoramari buruzko hausnarketa bat egin eta desoreka guztiez ohartuz hasten dugu bidea. Emozioekin lan egitea ere gustatzen zait eta hortik sortzeko ariketak planteatzeko asmoa ere badut, beti ere sormenera eramanda. Instrumentu desberdinekin aritzea gustatzen zait eta bakoitzak etxean daukanari hautsa kentzea. Taldea animatuko balitz eta prozesuaren itxiera gisa, sortutakoa zuzenean aurkezteko aukera ematea ere gustatzen zait".

MUSIKAREKIKO SENTIBERATASUNA

Musika arloko formazioa edukitzea ez da ezinbestekoa ikastaroan parte hartzeko. "Beti laguntzen du, baina konprobatuta daukat tailerretara apuntatzen den jendeak baduela, formakuntza hori ez bada, musikarekiko sentiberatasun bat. Batzuetan, apuntatzen den jendeak ni baino formakuntza handiagoa du, baina ez du inoiz praktikara eramateko biderik topatu. Beraz, musikarekiko maitasuna eta konexioa dira bertara apuntatzeko ezinbestekoak diren gauzak".

Hainbat lekutan egin izan ditu era honetako tailerrak, eta esperientzia interesgarriak izan dira, oro har. "Donostian hasi nintzen eta Ondarroan eta Irunen aritzeko aukera ere izan dut. Arrasatekoa konfinamenduagatik moztu behar izan genuen arren, pena handiz geratu ginen, talde oso polita zelako eta gauza interesgarriak sortzen ari zirelako. Esperientzia eta feedbacka oso positiboak izan dira beti eta horregatik heldu diot bide honi, ikusi dudalako jendeak asko eskertzen duela formatu hau. Beraz, bide hau egin nahi duen edonor animatuko nuke izena eman eta probatu dezan!" ■



Noka EMAKUMEEN HITANOIA

Oñatiko emakumezkoen hitanoia berreskuratzea helburu duen **Ingo xonau!** egitasmoko kideen laguntzarekin, **Noka** ikastaroa antolatuta da Jabetze Eskolaren baitan.

Ingo xonau! proiektuko kide Beatriz Irizar izango da irakaslea, eta astean bi orduko saioak (astearteak, 18:00-20:00) egingo dituzte. "Teoria pittin bat ikusiko dugu, hika noiz egiten den, nola, hitanoan gehien erabiltzen diren aditzak... baina, batez ere, ikastaro praktikoa izango da, eta mintzapraktikaren bidez landuko dugu emakumeen hitanoia" azaldu digu Irizarrek.

Emakumeen hika berreskuratzea ahalduntzerako tresna ere badela uste dute **Ingo xonau!** taldeko kideek. "Garai batean gaizki ikusia egon zen emakumeek hika egitea, zatarra, bortitza, baserrikoa edo marimutitena zelakoan, eta horregatik eten da, hein handian nokaren transmisioa. Beraz, hurbiltasuna edo hurreko harremana adierazten duen erregistro hau berreskuratzeke aukera eskaini nahi du ikastaro honek".

» Hitanoa noiz eta nola egin, eta aditz forma erabilienak ikasiko ditugu praktikaren bidez



» Emakumeok
espazio publikoan
sentitzen
ditugun
beldurren atzean
dauden
baldintzatzaile
sozialak
aztertuko ditugu

Espazio publikoarekiko beldurrak ULERTZEKO (ETA GAINDITZEKO) GAKOAK

Zergatik jartzen naiz gorri? Zergatik egiten dit dar-dar ahotsak? Zergatik uste dut esatera noana ez dela garrantzitsua? Zer esango dute nire itxurari buruz? Zergatik daukat une oro barkamena eskatzen ibiltzeko beharra?... Galdera horiei guztiei erantzutea da ikastaro honen helburua.

Elkarrizketa, ahalduntzea, inklusioa eta parte-hartzea bezalako printzipioak lantzen dituen Aradia Kooperatibako Delicia Aguado-Peláezek eta Patricia Martínez Garcíak gidatuko dute ikastaroa. Egun bateko ikastaro trinkoa izango da, azaroaren 14an (10:00-14:00 / 16:00-19:00), eta arlo publikoan parte hartzerakoan (berdin bizilagunen arteko bilera batean, eskolako gurasoena edo udaletxeko pleno batean) sentitzen dugun beldurren atzean dauden arrazoiak eta faktoreak aztertu eta jorratuko dituzte. "Bakoitzaren nortasunarekin zerikusia duten faktoreak badauden arren, atzean emakumeengan beldur horiek azalera arazten dituen estruktura bat dagoela ikusarazi nahi dugu. Arazo kolektibo bat da eta, beraz, horren atzean dauden gizarte baldintzatzaileak kontuan hartu, eta horiek aldatzeko eta gainditzeko estrategiak landu behar ditugu denon artean, dinamika parte-hartzaile eta entretenigarrien bidez".

Espazio publikoan segurtasun eza sentitu duten eta horren zergatien inguruan gogoeta egin nahi duten emakume guztiak daude gonbidatuta parte hartzera. ■

IKASTAROA

ZORU PELBIKOA INDARTZEKO IKASTAROA



Abian Fisioterapia zentroko Saioa Baenak gidatuta, zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa egingo da azaroaren 19tik otsailaren 11ra (ostegunak, 9:30-11:00). Osasunarentzat hain garrantzitsua den gorputz atal hau sentitzen, ulertzen eta hobetzen ikasteko aukera.

SOLASALDIA

EUSKAL DEMOKRAZIA PATRIARKALA

Jule Goikoetxea, Lore Etxeberria, Zuriñe Rodríguez eta Esti-txu Garaik idatzitako liburua aurkeztuko dute azken biek. Euskal Herriko patriarkatu neoliberalaren ezaugarri estrukturalak, eta horiek emakumeen eta gizonen ongizatean, boteretzan eta demokratizazioan dituen ondorioak azalduko dituzte solasaldian.

*AZAROAK 18, ASTEAZKENA
udaletxeko areto nagusian, 18:00*



Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6
T.: 943 781 648
onati@gualbiasesores.com
-
www.gualbiasesores.com



Urrearen Zozketa

Lan solidarioa egiten jarraitzeko

COVIDaren ondorioz azarora atzeratu da aurten Gurutze Gorriaren Urrearen Zozketa. Debagoieneko Gurutze Gorriarentzat funtsezkoa da zozketa hau urtean zehar egiten duen lan guztia burutu ahal izateko.

40 urteko historian lehen aldiz, Gurutze Gorriaren Urrearen Zozketa udazkenean egingo da. Beti uztailan egin izan da, baina, aurten, COVID-19a dela eta, azaroaren 26ra atzeratu da.

Beraz, oraindik denboraz gaude laguntzeko, eta, gogoratu, boleto bakoitzagatik ordaintzen ditugun 5 euroetatik 4, Gurutze Gorriak Debagoienean egiten duen lanera bideratzen direla,

bai arlo sozialera eta baita sorospen edo larrialdi zerbitzura ere.

Izan ere, Urrearen Zozketa funtsezkoa baita Gurutze Gorriarentzat eta, bereziki, Debagoienekoa bezalako elkarteentzat. "Jende askok uste du Madrileko zentraletik iristen zaigula dirua, baina ez da horrela. Debagoieneko Gurutze Gorria autonomia da ekonomikoki, eta gure kabuz lortzen ditugun diru baliabideen

Azaroaren 10era arte eros daitezke Urrearen Zozketako txartelak herriko hainbat denda eta tabernetan, edo Elorregiko egoitzara deituta

araberako zerbitzuak eskaintzen ditugu", azaldu digu Javier Igartuak, eskualdeko Gurutze Gorriko presidentek. "Ildo horretan, Urrearen Zozketa diru iturri oso inportantea da guretzat, urteko aurrekontuaren %25 inguru izaten baita".

Beraz, Debagoieneko Gurutze Gorriak dei egiten die herritarrei Urrearen Zozketan parte hartzera eta, ahal dela, herriko

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40

«Urrearen Zozketa diru iturri oso inportantea da guretzat, urteko aurrekontuaren %25 inguru izaten baita»

JAVIER IGARTUA PALACIOS
Debagoieneko Gurutze Gorriko presidentea

denda eta tabernetan erostea txartelak, horien diru ekarpena hemengo Gurutze Gorriarentzat delako —Correos, Repsol eta beste establezimendu batzue-tako txartelak Madrilgo Gurutze Gorriak kudeatzen ditu—.

Gurutze Gorriko boluntarioen bidez edo Elorregi-San Prudentzioko egoitzan ere (943765576 / altodeba@cruzroja.es) eskuratu daitezke txartelak, azaroaren 10era arte. Gogoratu, 3 milioi euroko (edo horren balioa urrean) lehen sariaz gain, milioi bat euroko bigarrena, 500.000 euroko hirugarrena eta beste milaka sari txikiago irabaz ditzakegula.

ELKARTASUNA, INOIZ BAINO BEHARREZKOAGO

Gurutze Gorriaren lana beti izan da beharrezkoa, baina, orain, pandemiak baldintzatutako garai honetan, are garrantzitsuagoa bilakatu da, Covid-19ak jende eta familia asko utzi dituelako laguntza beharrean. "Apirilean, bereziki, konfinamendu garaian, lan asko egin genuen adineko pertsonak, gaixoak, eta egoera ekonomiko zailean zeuden pertsona eta familiei laguntzen —jarreraipen deiak egiten, elikagai eta botikak banatzen, oinarritzko beharrak asetzen...— eskualdeko udalekin eta zaharren egoitzekin elkarlanean betiere" azaldu digu Igartuak. "Pandemiak jende asko utzi ditu egoera zaurgarrian, eta lan asko dago oraindik egiteko. Horregatik diogu elkartasuna inoiz baino beharrezkoagoa dela".

Arlo soziala, formazioa eta larrialdiak



2015ean larrialdietako osasun garraio zerbitzua emateari utzi zion Gurutze Gorriak, eta orduz geroztik batez ere arlo sozialean zentratuta dabil, salbamenduak eta larrialdiak ahaztu barik. Hona hemen Debagoieneko elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuak.

ESKU-HARTZE SOZIALA

- Pertsona desgaituen **garraioa**.
- Laguntza **teknikoak**: gorpildun aulkiak, taka-takak, makuluak eta antzeko materialaren alokairua.
- **Pobrezia energetikoa**. Gasaren eta argindarraren fakturak ordaintzeko zailtasunak dituzten familientzako laguntzak (baldintza batzuk betetzen badituzte).
- **Eskolako materiala**. Baliabide urriak dituzten familietako gazteei eskolako materiala (motxilak, koadernoak, kalkulagailua...) eskuratzen diete kurtso hasieran.
- **Eskola arrakasta**. Iaz Bergaran jarri zuten martxan. Egokitzapen arazoak dituzten gaztetxoei zuzenduta dago; merienda osasungarriak, eskolako lanak...
- **Jostailu hezigarriak**. Gabonetan jostailuak oparitzen dizkiete baliabide gutxiko familietako haurrei. Kanpaina honetarako herritarren laguntza eskatzen da, jostailu berriak edo jostailu-txekeak erosiz.

FORMAZIOA

- Lehen sorospenak eta desfibrilagailuen inguruko ikastaroak eskaintzen dizkiete,

udaletxe, enpresa, ikastetxe eta nahi duten elkarte guztiei. Boluntarioendako formazio saioak ere antolatzen dituzte.

PREBENTZIO ZERBITZUAK

- Osasun zerbitzuren bat egotea exijitzen duten ekitaldietan (lasterketak, herri bazkariak...). Ordainpeko zerbitzua izaten da.

ERRESKATEAK

- 112 - SOS DEIAK zerbitzuak eskatzen duen aldiro, salbamendu operazioetan parte hartzen du erreskateetan trebatutako Gurutze Gorriaren unitateak.

BALIABIDEAK

- Elorregi-San Prudentzioko egoitzaz gain, 2 anbulantzia (bat medikalizatua), 3 mikrobuz, 2 todoterreno (erreskateetarako), koordinaziorako ibilgailu bat, eta funtzio anitzetarako turismo bat du Debagoieneko Gurutze Gorriak.
- Giza baliabideei dagokionez, langile bat dute kontratatuta, gestioak eta burokrasia lanetarako, batez ere. Gainerako guztiak boluntarioak dira. Gaur egun 80 bat bolondres daude, baina aktiboak 30 bat. Dena den, beharra dagoenean eta larrialdietan jendeak ondo erantzuten du.

Javier Igartuak (eskualdeko Gurutze Gorriaren sortzaileetako bat da bera, iaz zendu zen Iñigo Guridirekin batera) esker-erak eman nahi dizkie bazkideei eta diru ekarpenak egiten dituzten guztiei.

Oñatiko turismoaren DIAGNOSTIKOA

- ▶ Beinke enpresak egin du Oñatiko turismoaren gaur egungo egoeraren azterketa.
- ▶ Datozen urteetarako Plan Estrategikoa diseintzako abiapuntua izango da.



Xabier Igartua, udaleko Sozioekonomia batzordeko burua eta Lurdes Romano, *Beinke* enpresako kidea

Oñatiko turismoaren azken plan estrategikoa 2010ean egin zen, eta orduz geroztik sektoreak aldaketa handiak bizi izan dituela kontuan hartuz, turismo plana berritzeko unea dela erabaki du udal gobernu taldeak.

Prozesua abiarazteko, turismo gaitetan aditua den *Beinke* enpresa kontratatu zuen udalak Oñatiko turismoaren gaur egungo egoeraren azterketa eta diagnostikoa egiteko. Azken hilabete hauetan zehar, pandemiak baldintzatuta izan bada ere, sektorean diharduten eragile publiko eta pribatuaren iritzia eta azken urteetako datuak eta bilakaera kontuan hartuz, herriko turismoan eragiten duten faktore nagusiak aztertu ditu Beinkek, bost ardatzetan banatuta (kudeaketa, turismo gunea, eskaintza, marketina eta lehiakortasuna) arlo bakoitzeko ahuleziak eta indarguneak aztertuz. Txostenaren laburpena ekarri dugu orriotara.

↓ Oñatiko turismoaren INDARGUNEAK, AHULEZIAK eta ERRONKAK

(laburpena)

• Kudeaketa

INDARGUNEAK

- Oñatiko udalaren apustua. Baliabide ekonomiko eta pertsonal garrantzitsuak.
- Turismoa sustatzeko eskualde mailako lan-mahaia, eta beste eskualde eta proiektuekin elkarlana egiteko eremuak.

AHULEZIAK

- Turismo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren eskasa.
- Oñatik ez du parte-hartze handirik Debagoieneko turismoaren kudeaketan.
- Ez dago behar besteko koordinaziorik aisialdiko eta laneko bisitariekin erlazionatutako erakunde publiko eta pribatuaren artean: Arantzazu Gaur, Soziologia Juridikoa, Parketxe Sarea...

ERRONKAK

- Eskualdeko turismo kudeaketan parte hartzea.
- Lankidetzaren publiko-privatua bultzatzea.
- Erakundearen arteko lankidetzaren antolatu.
- Turismo jarduerekin zerikusia duten erakunde eta enprekin aliantzak egiteko sistema indartzea.

• Turismo lekua: udalerria

INDARGUNEAK

- Oñati eta inguruko ondarea eta ikono garrantzitsuak (Arantzazu, parketxea...).
- Ondarea eta azpiegiturak birgaitu eta hobetzeko inbertsio publiko-privatuak.

AHULEZIAK

- Udalerriko errepide sarearen iragarritasuna. Eskualde arteko garraio eskasa.
- San Prudentzioko geltokiaren irudi eskasa.
- Ikuspuntu turistikotik hobetu beharreko eraikinak: Unibertsitatea, Antia...
- Landa eremuko interesguneetan (Aitzulo...) oinarritutako zerbitzuen gabezia.
- Irigarritasun mugatua zenbait lekutan.

ERRONKAK

- Ondare historiko-kulturala nabarmentzeko prozesuan berrikuntzak sartu eta bisita-proposamen berriak egitea.
- Mugikortasuna eta turismo fluxuak kudeatzea.
- Udalerrirako iragarritasuna eta konektagarritasuna hobetzea, eta baita toki batzuetako seinaleetika eta aparkalekuak.

• Eskaintza

INDARGUNEAK

- Baliabide askotarikoak eta osagarriak (kultura, natura, gastronomia...).
- Sukaldaritza eta alojamendu zabala.
- Gandiaga Topagunearen aukerak.

AHULEZIAK

- Udako hilabeteetan turismo arloko zerbitzuak falta dira.
- Bisita industrialek eta profesionalek ez dute loturarik Oñatiko turismoaren balio-katearekin.
- Nolabaiteko geldialdia bisita gidatuen formatuan eta edukian.
- Turismo industrial eta profesionalaren portaerari buruzko informazioa falta da.

ERRONKAK

- Basquetour, Foru Aldundia eta Debagoieneko turismo produktuetan Oñati posizionatzea.
- Turismo industrial eta profesionala balio-kate turistikoan sartzea.
- Udalerriko eskaintza turistikoa produktu ugari eta helmuga gisa sendotu eta dibertsifikatzea.

➔ TURISMO SEKTOREKO ERAGILEEN IKUSPUNTUAK

» IÑAKI ARKAUZ Arregi Nekazalturismoa

Oñatira datorren jende asko harrituta geratzen da gure herriko edertasunarekin, eta uste dut 'Oñati' marka gehiago landu behar dugula.

Uste dut turismo jasangarria sustatu behar dugula, daukagun ondarea babestu eta mantentzeko. Ildo horretan, aparkalekuak ondo definitu eta mendira datorren jendeak zakarrak behera ekar ditzan kontzientziatu arazi behar genuke.

Bestetik, herri euskaldun bat garen aldetik, turistek ere ondare horren berri izatea eta ahal den neurrian erabiltzea bultzatu behar dugu.

Gaurko teknologia berriak ere baliatu behar genituzke. Adibidez, *Google Maps* bidez Oñati inguruetakoko ibilbideak markatu litezke turistek gauzak erraztuz.

Lan horiek aurrera eramateko Lurdes Romano aukerakoa dela uste dut.



» MIREN MAIZTEGI Goiko Benta ostatua

Lehentasuna da, nire ustez, erakunde publiko eta eragile pribatuen arteko elkarlana indartzea. Gu txikiak gara, eta administrazioaren laguntza behar dugu formazio eta hobetze planak egiteko, azken batean guk ematen dugun irudia inportantea delako.

Eragile pribatuen artean ere elkarlana areagotu behar genuke, programa ezberdinak aurrera ateratzeko.

Oñatik erakargarritasun asko ditu bisitarientzat, baina antolatzen diren bisita gidatuak modernizatu eta osatu egin behar direla uste dut.

Komunikazioak ere hobetu behar dira, ez bakarrik turismoaren ikuspuntutik, herritar guztientzako baizik. Guk, zehazki, Arantzazurako autobus zerbitzua larunbaterara zabaltzea ere eskertuko genuke, eta kultur eskaintza indartzea, jendeak ondo erantzuten duelako.



» JUAN BIAIN Arantzazu Gaur fundazioa

Hasteko, *Beinke* egin duen lana zoriondu nahi nuke. Lurdes Romanok ondo ezagutzen du Oñati, bistan denez, eta oso egoki ikusi dut diagnostikoa.

Uste dut Oñatik aberastasun izugarria daukala eta, gainera, jendeak ezagutzen duela. Beraz, ez dugu gure eskaintza ezagutarazteko lan berezirik egin behar. Baina, bestalde, Covid-ak azaleratu digu gabezia batzuk. Azken hilabete hauetan jende asko etorri da Arantzazura, eta ikusi dugu azpiegitura edo baliabide batzuk (komunak, seinaleztapena, aparkalekuak...) hobetu behar ditugula. Azpimarratu nahi nuke udalak egin duen ahalegina komunak irekitzeko; ikusten ez den lan bat da, baina jendeak asko eskertzen duena, eta, agian, azpiegitura horiek hobetzeko unea da, turistek zerbitzu hobea eman ahal izateko.




» ANTON AZPIAZU Txokolateixia

Turismo mailan Oñatik daukan gabezia handiena, nire ustez, komunikazioarena da. Garrantzia publikoa oso urria da, Oñatira etortzeko 2-3 transbordo egin behar dira, eta, gainera, San Prudentzian, dagoen moduan egonda. Eta behin Oñatira iritsita, Arrikruzera edo Arantzazura joateko, dokemetan bakarrik dago zerbitzua.

Bestalde, herriaren zati handi bat ez da inplikitzen turismoan. Oso tristea da abuztuako arratsalde batean herriko taberna eta denda gehienak itxia egotea. Turistek beraiek esandakoa da.

Turismo bulegoak eta udaleko turismo departamentua lan asko egiten ari dira, baina uste dut hartueman eta elkarlan estuagoa behar dela udalaren, turismo zerbitzuen eta herriko dendari, tabernari eta ostalarien artean, turistentzako eskaintza eta zerbitzuak hobeto koordinatzeko.



• Marketina

INDARGUNEAK

- Hainbat profiletara zuzendutako eskaintza egiteko aukera.
- Eskaintza egiteko bi turismo bulego.
- Udalak eta udalaz gaindiko administrazioek apustu sendoa egiten dute: ekoturismoa, gastronomia, Ignaziotar Bidea...

AHULEZIAK

- Oñati marka turistikoak ez du behar adinako posizionamendurik.
- Fidelizazio-estrategia artikulatuen defizita.
- Erakunde garrantzitsuekin (Arantzazu Gaur, GPS...) sustapen-ekimenak egiteko harreman urria.
- Webgunea motela da. Urritasunak online bidezko marketin kudeaketan.

ERRONKAK

- Turismo-ezagutzarako gunea sortzea.
- Herritarren inplikazioa lortzea sentsibilizazio-kanpainen eta jardunaldi irekien bidez.
- Xede publikoaren arabera egokitutako komunikazio eraginkor eta pertsonalizatuagoa ezartzeko aukera emango duten marketin-ekimenak identifikatu eta garatzea.

• Lehiakortasuna

INDARGUNEAK

- Sektorearen lehiakortasunaren alde egiten du Basquetour-ek.
- Sektore turistikoaren zati handi bat prestakuntzaren beharraz jabetzen da.
- Sektoreak informazio eta parte hartze handiagoa eskatzen die erakundeei.

AHULEZIAK

- Enpresek eta helmugak parte hartze baxua dute ingurumen konpromisoarekin erlazionatutako programetan.
- Turismoaren inguruko prestakuntza (hizkuntzak, webgunea dinamizatzea, off-line eta on-line marketina...) falta da.
- Elkarteen ahultasuna prestakuntza-eskaintza eta beste eskaerak eskatu eta egokitu ahal izateko.

ERRONKAK

- Sektore turistikoaren eskari errelera egokitutako prestakuntza mapa bat diseinatu eta inplementatzea.
- Elkarre-ehuna sustatzea.
- Prozesu berritzaileak bultzatzea lehenetik daude negozio ereduetan.



Oñatiko turismoaren inguruan Beinke enpresak egindako diagnostikoaren laburpena osorik irakurtzeko, eskaneatu ondorengo QRA



2021erako zerga eta tasak onartu ditu udalak

Ondasun Higiezin, Jarduera Ekonomiko eta Ibilagiluen gaineko zergak garestitu egingo dira, eta gainerako udal zerga eta tasak izoztu. COVID-ak zuzenean kaltetutako sektoreei zuzendutako zenbait **hobari** onartu dira.

2021. urterako ordenantza fiskalak onartu zituen udalbatzak urriaren 15eko osoko bilkura berezian, EH Bilduren aldeko eta EAJren aurkako botoz. Irizpide orokor gisa izoztu egingo dira zerga eta tasa gehienak, hiru izan ezik: Ondasun Higiezinak, Jarduera Ekonomikoak eta Ibilgailuak. Hiru zerga hauek tipoa jaso egingo dira, eta horrek eragin du udaleko talde politikoen arteko eza-dostasuna. Bestalde, zenbait hobari ere onartu dira, COVID-19ak nabarmen kaltetutako sektoreei laguntzeko.

Gobernu taldearen izenean Izaro Elorza alkateak azaldu zituen 2021eko ordenantza fiskalen inguruan egindako gogoeta eta hartutako erabakien nondik norakoak. "COVID-19ak irauli egin ditu 2019an genituen aurreikuspenak eta, horregatik, sakon eta arduraz aztertu dugu egungo zerga ordenantza, Debagoieneko eta Gipuzkoako gainontzeko herrietakoekin alderatuz".

Alkateak gogorarazi zuen udalarentzat diru-sarrera na-

«Foru Funtsa nabarmen jaitsiko da, baina oinarritzko zerbitzuak mantendu eta behar handiena dutenei laguntzen jarraituko dugu»

IZARO ELORZA

Alkatea, EH Bildu

gusia den Foru Funtsa nabarmen jaitsiko dela aurreikusten dugu, baina garbi daukagu, hala ere, mantendu egin behar ditugula udalak ematen dituen oinarritzko zerbitzuak, eta behar handiena dutenei laguntzen jarraitu behar dugula".

HOBARIAK

COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz nabarmen kaltetuak izan diren sektoreei laguntzeko zenbait hobari berri jasoko ditu datorren urteko

«Ez da zergak eta tasak igotzeko unea. Herritarrei esfortzua eskatu ordez, udal aurrekontuetan lehentasunak ezartzeko unea da»

AINHOA GALDOS

EAJ

zerga ordenantzak. Hala, komertzio eta ostalaritza arloko establezimenduei %15 eta %30 arteko hobaria aplikatuko zaie (langile kopuruaren arabera) zabor tasan, eta taberna nahiz kafetegiek terrazen azalera bikoiztu egin ahal izango dute —posible den kasuetan— tasa gehikuntzarik gabe. Bestalde, Hirukide elkarteak egindako gomendioa aintzat hartuz, familia ugarietako Ondasun Higiezinaren gaineko zergan aplikatzen zaien hobariari doikuntzak egin dira, eta zineko

sarreraren 50 zentimoko deskontua aplikatuko zaie. Bestetik, Trauti-ren proposamena aintzat hartuz, elbarritasuna edo lanerako ezintasuna duten pertsonei %50eko hobaria aplikatuko zaie kiroldegiko tasetan. (Ikus xehetasunak ondoko taulan).

ZERGA IGOERAK

Ondasun Higiezinak, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuak eta Jarduera Ekonomikoen gaineko zergak kalkulatzeko tipoa igo egingo dira, Debagoieneko batzbestekora gerturatuz (ikus xehetasunak ondoko taulan). "Ondasun Higiezinaren zerga kontzeptuan urteko 9 euroko igoera eragingo du norbanakoentzat, eta 45 eurokoa enpresentzat. Ibilgailuen zergan, berriz, 7 euro gehiago ordaindu beharko ditugu, batz bestea" azaldu zuen Xabier Igartua, Ogasun batzordeko burua. Modu horretan, udalak 140.000 euro inguru gehiago jaso ahal izango du datorren urtean zerga bidez, eta Foru Funtsean egongo den jaitziera konpentsatzen lagun-



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net f i



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

duko du, hein batean.

EAJ AURKA

Udal gobernu taldeak proposatutako ordenantza fiskalen kontra bozkatu zuen EAJk. "Ez da zergak eta tasak igotzeko momentua" adierazi zuen Ainhoa Galdos jeltzaleen bozeramaleak. "Zergarik garrantzitsuenak — Etxebizitza (%5,29), Jarduera Ekonomikoak (%1,80) eta Ibilgailuak (%5,55)— igotzeko proposamena aurkeztu digu gobernu taldeak, eta ezin dugu horrekin bat egin. Ez dugu uste COVID-19ak sortutako beharrei aurre egiteko biderik egokiena zergak igotzea denik. Herritarrei esfortzu bat eskatzea baino, udal aurrekontuetan lehentasunak ezartzen ahalegintzea egokiagoa dela uste dugu".

Eskualde mailan zergak harmonizatzearen inguruan EH Bilduk emandako azalpena aitzakia baino ez omen da EAJren ustez. "Aurreko agintaldian zerga eta tasak izoztea izan zen EH Bilduren irizpide orokorra, eta 2020an KPIa baino ez zen igo. Orain, aldiz, diru-sarrerak gutxitu direnean, oñatiarren bizkar konpentsatu nahi da jaitsiera, harmonizazioaren aitzaki pean".

2021eko zerga eta tasa guztiak izoztea proposatu du EAJk. Horrez gain, COVIDak eragindako krisia arintzeko asmoz, zabor-bilketa tasan merkatari eta ostalariei %25etik gorako hobaria aplikatzea proposatu zuen EAJk, eta taberna nahiz jatetxei terrazak handitzeko aukera ematea, kostu gehigarririk gabe.

Bestalde, (COVID-19ak gazteen lanerako sarbidea zaildu eta atzeratu duenez) kirol ekintzetako tasetan (igerrilekua, frontoia, tenis pista...) hauek murrizteko adinaren erreferentzia 21 urtetik 23ra luzatzea proposatu dute jeltzaleek. ■



ZERGA ORDENANTZAKO BERRITASUNAK

IGOKO DIRENAK

• Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ)

Lurzoru industraleko edo hirugarren sektoreko ondasun higiezin hiritarren karga-tasa %0,57361etik %0,584ra pasako da, eskualdeko batzbestekoarekin parekatuz. Gainerako ondasun hiritarren karga-tasa %0,22280tik %0,235era jasoko da, eskualdeko batzbestekoaren parera.

• Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ)

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga %2,01etik %2,15era pasako da, eskualdeko erreferentziaren (%2,2) azpitik.

• Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zerga (TMIZ)

Ibilgailuei aplikatuko zaien koefizientea 2,2738tik 2,4ra jasoko da, eskualdeko batzbestekoaren (%2,48) azpitik.

HOBARIK

• Zabor tasa

1-5 langile dituzten komertzio eta ostalduen %30eko hobaria aplikatuko zaie zabor tasan, eta %15ekoa 5-15 langileko establezimenduei.

• Bide publikoa okupatzeagatiko tasa (terrazak)

Posible den kasuetan, taberna eta kafetegietako terrazek espazio bikoitza hartu ahal izango dute, tasa gehikuntzarik gabe.

• Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ)

Kide ugariako familiei OHZ zergan hobaria aplikatzeko katastro-balioaren gehienezko zenbatekoa 190.000€tik 220.000€ra igo da. Hobaria jasotzeko aukera gehienez 90.000€ko sarrerak dituztenei mugatuko zaie.

Auzoetan kokatutako eta inor erroldatuta ez dauden baserrien kasuan, %100eko errenergia ordaintzetik salbuetsita geratuko dira. Herrigunetik 5km baino gehiagora bizi eta familia antolamendurako herri barruan bigarren etxebizitza erabili beharra ziurtatzen dutenei ere ez zaie aplikatuko etxe hutsen errenergia.

• Obren gaineko zerga

%25eko hobaria aplikatuko zaie leihoak aldatzeko obra guztiei, energia eraginkortasunaren aldetik kontsumoa murrizten laguntzen dutelako.

• Soinu neurketen tasak

Ostalaritza jarduerak arautzen dituen zarata-mailentzako mugatzaile erregistratzaileak gordetako informazioa lortzeko txostena egiteari 250€ko tasa ezarri zaio. Salatzaile berberak (edo komunitateak) 2/3 hilabeteko epean txostena berrituz egitea eskatuko balu eta txostenaren emaitza ordenantzak ezarritako mugekin bat etorriko balitz, aipatutako gastua kexa egiten duen salatzaileak hartuko du bere gain. Aipatutako txostenaren ikusiko balitz tabernaren hots mugak gaituz egiten dutela Ordenantzak ezarritako muga, edota zarata mugatzeko sistemarekin edozein ezbehar izan dela, jardueraren titularrak hartu beharko du txostena egitearen gastua bere gain.

• Zineko tasa

Zine emanaldietako sarreretan 0,5€ko hobari finkoa aplikatuko zaie familia ugarietako kide guztiei.

• Kiroldegiko tasak

Elbarritasunen bat edo lan egiteko ezintasuna aitortua duten herritarrei %50eko hobaria aplikatuko zaie kiroldegia erabiltzeko tasetan.

Hemen aipatzen ez diren gainerako udal zerga eta tasa guztiak izoztu egingo dira.

Madalena industrialdera bizikletaz edo oinez joatea errazagoa izango da

Madalenako ermita eta Fagor Industrial lotuko dituen bidegorri zatia eraikitzeko lanak kontratatatzeko deialdia egin du udalak



Santxolopeztegi industrialdera bizikletaz edo oinez iristeko bidegorria eraikitzeko proiektua onartu eta lanak kontratatatzeko deialdia egi-
tea erabaki du udal gobernu taldeak.

Madalena industriaguneko enpresek eta, zehazki, Fagor Industrialek 2018ko udan eskatu zioten udalari bertako langileak oinez edo bizikletaz lantegira joan ahal izateko bidea egokitzea, eta, garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak gauzatzeko Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntza bat tarteko, proiektua gauzatzeko unea dela erabaki du udalak.

100 METROKO BIDEA

Injelan S.L. enpresak idatzi du exekuzio proiektua, eta ondoko argazkiek erakusten duten moduan, ehun metro eskaseko (97,86m) bidegorria egokituko da Madalenako ermitako sarbidea eta Fagor Industrialen pabilioira daraman bidearen artean, Artixa erreka-
ren parean doan Torreauzo-Santxolopeztegi arteko bidegorriari jarraipena emanez.

Proiektuaren arabera, bidegorriaren lehen zatian, Madalenako ermitara doan harrizko



Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- ✓ Heriotza
- ✓ Autoak
- ✓ Bizitza
- ✓ Istripuak
- ✓ Ontziak
- ✓ Osasuna
- ✓ Etxebizitza
- ✓ Aurrezkia
- ✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84

mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com



PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

» Bideak %15eko pendiza izango du, bidegorrietarako gomendatzen dena baino handiagoa, baina bidearen ezaugarriak kontuan hartuz, onargarrizat jo da

bidea berrituko da; 1,50m.-ko zabalerako hareharriz zolatu-tako pasabide bat egokituko da, eta galtzadaren gaine-rako zatia birzolatu egingo da, gaur egungo harriekin. Hor-tik aurrera, 2,70 m.-ko bide berria (2,30 m.-ko galtzada eta 0,40m.-ko bazterbidea) egokituko da, hormigoizko harri-lubeta eta harri-horma baten babesean. Azkenengo tartean, egurrezko baranda edo eskudela jarriko da.

%15EKO MALDA

Bideak %15eko pendiza izango du, bidegorrietarako gomendatzen dena baino handiagoa, baina ibilbidea-ren luze-laburra, ingurua eta erabiltzaileen profila (bizikleta eta patinete elektrikoak) az-tertuta, onargarrizat jo da.

Bidean zehar bost argi poste jarriko dituzte eta, amaieran, Fagor Industria-lerako sarbidean, bizikleten-tzako bi ibilbide egokituko dira, zoruan marraz margo-tuta.

Proiektuak 72.897 euroko (BEZ kanpo) aurrekontua du eta 12 asteko epea aurreikus-ten da lanak burutzeko. ■

OÑATI.BONOAK.EUS EKIMENA

Dagoeneko 300.000 euro gastatu dira bonuetan

Arrakastatsua gertatzen ari da herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektoreak kontsumoa sustatzeko helburuarekin udalak abian jarri duen 'OÑATI.BONOAK.EUS' ekimena. Aldizkaria ixteko egunean (azaroak 2) bildutako datuen arabera, 3.004 bonu zeuden salduta, horietatik 1.007 online eta 1.997 offline, hau da, komertzio edo zerbitzuetan bertan. Horrek esan nahi du, diruz lagundutako erosketa-bonuen bidez dagoeneko 296.544,61 euro gastatu direla ekimen honetara batu diren 74 saltokietan.

Gogoratu, udalak 110.000 euro bideratu dituela ekimen honetara, eta denak saltzen badira, 500.000 eta 600.000 euro arteko kontsumoa sustatuko dela herriko denda, zerbitzu eta ostalaraitza arloko establezimenduetan.

Bonuak bi modutara eskura daitezke: <https://oñati.bonoak.eus> plataforman izena emanda (bertan aukeratu ahal izango dugu zein dendatan eta zenbateko bonua erosi gura dugun), edo ekimenara atxikitako dendetan (oraingoz 74 merkatarik eman dute izena) erosketa egiterakoan.

Oñatin erroldatutako 16 urtetik gorako herritarrek eskuratu ahal izango dituzte bonuak, 200€-ko mugarekin, pertsonako. Komertzio bakoitzak gehienez 15.000€ fakturatu ahal izango ditu diruz lagundutako bonuen bidez, ahalik eta merkatarik gehienera laguntzea baita helburua.

'Singular Denda' errekonozimendua jaso dute



Gipuzkoako Merkatarien Elkartearen 'Singular Denda' errekonozimendua jaso dute Oñabike eta Trikitx dendeak, Gipuzkoako beste 17 komertzio-erakunde batera. Tokian tokiko dendek lehiakortasuna hobetzea da 'Singular Denda' egitasmoaren helburua. Horretarako, saltzaileen kompetentziak, saltokia, erakusleihoak eta komunikazioa hobetzeko talde-formazioa eskaintzen zaie, aholkularitza partikularrekin batera.

Urriaren 22an telematikoki egin zen eman zen jakitera aurten 'Singular' aitortpena jaso duten 19 dendek izenak. Oñatiko alkateak ere zorian mezua bidali zien sarrituei eta, oro har, herriko denda guztiei, herria bizirik mantentzeko egin duten ahalegina eskertuz.



Oztopo-zutoinak ipiniko dituzte Maiatzaren 1a plazan eta Unibertsitate etorbidean

Udalak bina oztopo-zutoin ipiniko ditu Unibertsitate etorbidean (Aita Madina kaleko bidegurutzean) eta Maiatzaren 1a plazan. Oñatiko Hiri-Mugikortasun Iraunkorrerako Planean jasotakoa aintzat hartuz, oinezkoen guneetara ibilgailuen sarrera-irteera kontrolatzea da neurri honen helburua. Aipatutako bi lekuetan oztopo-zutoin elektro-hidraulikoak eta kontrol sistema hornitu eta instalatzeko lizitazioa abian jartzeko baldintza ekonomiko-teknikoak onartu ditu, 32.013€-ko (BEZ gabe) aurrekontuarekin.

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak




653 70 45 47
Oñati

Hondakinen murrizketa helburu

'HONDAKINEN ASTEA' EGINGO DA AZAROAREN 21etik 29ra

Hondakinen kudeaketa egokirako sentsibilizazio-ekintzak egingo dira: ideia lehiaketa, ginkana, hondakinen karakterizazioa, muralen margoketa, informazio puntua...



ZABORRA LURRERA EZ BOTATZEKO KARTELAK

Hondakinen Astean zehar goikoa bezalako kartelak ipiniko dira herriko kaleetan. Ilustrazio berezien bidez, eguneroko bizitzan ematen diren egoerak ikuspegi komiko batetik islatzea da helburua, herritarrei hausnarketa eragiteko asmoz.

Hondakinen Prebentziorako Europako Astearekin bat eginez, 'Hondakinen Astea' egingo da Oñatin azaroaren 21etik 29ra, udaleko Ingurumen sailak antolatuta. Gure herriko errealitatea kontuan hartuz, adin guztietako herritarrei zuzendutako hainbat ekintza gauzatuko dira, helburu jakin baten inguruan: hondakinen kudeaketa egoki baten alde herritarrek sentsibilizatzea, hiru irizpide hauek jarraituz: hondakinak **murriztea**, lehen aukera bezala; produktu edo ondasunak **berrerabiltzea**, bigarren aukera gisa; eta materialak **birziklatzea**, azken aukera moduan.

IDEIA LEHIAKETA ETA ZOZKETA

Hondakinen Asteak dirauen egunetan (azaroak 21-29), herritar guztiei zuzendutako ideia lehiaketa egingo da. Hondakinen urrezko hiru arauen (murrizketa, berrerabilpena eta birziklapena) alde Oñatin gauzatu daitezkeen ekintza zehatzen inguruko proposamenak jasotzea da helburua. Proposamenak udalaren webgunean (www.oñati.eus) egokituko den estekara bideratu beharko dira, eta partaide guztien artean oihalezko poltsa berrerabilgarriak zozkatuko dira.

INFORMAZIO PUNTUA

Azaroaren 28a, larunbata, izango da Hondakinen Astea egun nagusia. Foruen plazan informazio puntua jarriko da (12:00-14:00 / 15:00-19:00) eta hainbat ekintza antolatuko dira honen inguruan.

Alde batetik, '**Tokiko Agenda 2030**' programaren berri emango da: zer den, zein helburu dituen... eta **Hondakinen dekalogo**a (eguneroko bizitzan gauzatu daitezkeen hamar irtenbide simple eta eraginkor) ere azalduko da. Horiez gain, hondakinen urrezko hiru arauen inguruko murla osatzeko **tailerra** (12:00) egingo da haurrekin, herriko kaleetan batutako hondakinen **karakterizazioa** (12:00) egingo da familia giroan, eta 8 urtetik gorako gaztetxoei zuzendutako **ginkana** dibertigarria (16:30) ere egingo da, ondo pasatu eta gaiaren garrantziaz ohar daitezen. ■

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behe • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

Gezalaga Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

Gure beharra baduzu,
ondo-ondoan gaituzu.
Arrasaten.

Hain ondo zaindu nahi
zaitugunez, **Arratsaten bertan**
ere artatuko zaitu Zuatzu
klinikako espezialista-taldeak,
20 urtetik gorako esperientzia
duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.
Jaio aurreko diagnostikoa.
Bularretako patologia.
Laguntza bidezko ugalketa.

Nafarroa Etorbidea, 4 (bajo)
20500 Mondragón
943 792 018



www.clinicazuatzu.com



Larre-lekuak berreskuratzen

Unaimendi inguruan, sastrakaz josita zegoen eremu zabal bat garbitu dute udalak eta foru aldundiak, ganaduarentzat berreskuratzeko

Foru aldundiarekin elkarlanean, sasiak hartuta zegoen 15 bat hektareako mendi eremua garbitu du udalak, Unaimendi inguruan, larre-leku gisa berreskuratzeko asmoz. Aldundiak aurtan martxan jarri duen 'Goilarre' izeneko programaren baitan egin dira lanak, Asier Iraeta udaleko Nekazaritza eta Ingurumen batzordeko buruak azaldu digunez. "Diputazioaren eta herri onurako mendien titularren (udalak) artean mendi larreen mantentze eta hobekuntzarako kofinantziazio eredua finkatu dugu Goilarre programaren baitan. Horrekin batera, aurretik egin diren eta egin beharreko lanen jarraipena eta planifikazioa ere egingo da, gure kasuan Oñatiko ganaduzaleak biltzen dituen Aloabel elkartek ere parte hartuko duelarik".

Hitzarmena positiboki baloratu du Iraetak, baina, hala ere, Covid-19ak sortutako premiak direla eta, Aldundiak murrizketak egin behar izan ditu larreetara bideratu beharreko inbertsioetan, eta soiltze edo xehaketa lanetarako bakarrik jarri du dirua.

AURTENGO LANAK

Unaimendi inguruko larreak berreskuratzeaz gain, Aitzgain inguruan ere egin dira larreak garbitu eta hobetzeko lanak. Jon Ander Irizarrek egin ditu azken hauek, eta Aloña aldekoak berriz Lizelan enpresak egin ditu, sastrakak xehaketako robot edo makina berezi bat erabiliz. Lan hauek osatzeko, inguru horretan ganaduarentzako ur-aska berri bat egokitzea eta lehendik dauden iturri eta ur-aska bana konpontzea falta da.

Bestalde, Aloabel elkarteko kideek Mallako mangada konpontzeko lanak egin dituzte auzolanean (diputazioak ipini du materiala). Denera, 50.000 euroko inbertsioa egin da; hauetatik 30.000 euro Oñatiko udalak jarri ditu eta gainontzeko 20.000 euroak diputazioak.



Ondoko argazkian ikusten den robotarekin egin dira mendia soiltzeko lanak. Beheko argazkian ikusten den moduan, sasiz eta arantzaz josita zegoen eremua garbi geratu da orain. (Argazkiak: Asier Iraeta)





Duruko hiru artzain-txabola berritu ditu udalak

Tellatxabola eta *Aixabel* izenez ezagunak diren artzain-txabolak berritu ditu udalak, Duru inguruko etxolak hirurak. *Eusebiorena* bezala ere ezagutzen den *Tellatxabolari* dagokionez, ormak gogortu eta teilatu berria egin zaio, goiko argazkian ikusten den moduan. Barrualdea ere hustu da. *Aixabel* edo *Pastoraloko* txaboletan berriz, abereen kortari teilatu berria egin zaio eta txabola txikiari (bizilekua) ormak gogortu eta teilatu berria egin zaio. Guztira, 40.000 € inguru inbertitu ditu udalak berritze lanetan.

Konponketa lan hauen helburua, oraingoz, ondareari zutik eustea da, baina, aurrera begira, udalaren jabetzako artzain-txabolen erabilera arautuko duen ordenantza bat egitea da asmoa, Nekazaritza eta Ingurumen batzordeko buru Asier Iraetak azaldu digunez.

"Txabola hauek berriz ere artzaintzarako erabiltzea litzateke azken helburua". Gogoratu, udalak aurtan emango duen Ingurumen Bekan jorratuko beharreko gaia ere ildo berean doala, alegia, udalaren lursail patrimonialen zein gutxiegi erabili edo utzita dauden ondasunen azterketa eta ekintzarako aukerak jorratzea. ■



Hainbat asfaltatze lan egin ditu udalak auzo bideetan

Ondoko argazkietan ikusten den moduan, landa auzoetako bideen konponketa planaren baitan hainbat asfaltatze lan egin ditu udalak azken hilabeteotan. Alde batetik, Lizarralde baserritik Murgiko Errota alderako bide zatia asfaltatu da Berezaon (21.455 € (BEZ gabe), eta, bestetik, Duruaren bidean (Garibai) egurra ustiatzen eragindako kalteak konpontzeko lanak egin dira (20.124 €).

Bestalde, egun hauetan egiten ari dira konponketa lanak Errekalde eta Torretxebarri artean eta Arretxe baserrirako bidean. Dirurik geratzen bada, urtea amaitu aurretik beste konponketa txiki batzuk ere egingo dira.



*Betirako gordeko
dituzun momentuak*

Natxo Santos
ARGAZKILARIA

Olakua 7
T. 688 641 036

f i

JAUNARTZEAK, URTEURRENAK, BAKARKAKO SESIOAK... ETA N.A.N. ARGAZKIAK Natxo Santos Argazkilaria



Sokadun kupula berria prest Errekaldeko jolas-parkean

Goiko argazkian ikusten den moduan, erabilgarri dago iada sokadun kupula berria Errekaldeko jolas parkean. Gogoratu, Partaidetzazko Aurrekontuak egitasmoan herritarrek lehentitako proposamenetako bat izan zela era honetako jolas gune bat egokitzea. Bartzelonako *Juegos Koman* S.A. enpresak egin ditu hornikuntza eta instalazio lanak 60.368€-tan.

LIZIAUR ETA UGARKALDE

Ondoko argazkian ikus daitekeen moduan, Liziaur kaleko jolas parkea ere berritu du udalak. Zaharkituta eta hondatuta zeuden elementu batzuk kendu eta berriak ipini dituzte. Udal brigadako langileek egin dituzte lanak.



Bestalde, hil honetan hastekoak dira Ugarkaldeko jolas parkean estalkia eraikitzeke lanak. Udalak Carpas Zaragoza S.L. enpresari esleitu dio lana 123.470€-tan (+BEZ). Hiru asteko epea aurreikusten da.



Gazteen kultur jardueretarako diru laguntzak eskatzeko epea zabalik dago azaroaren 10era arte

DIRU LAGUNTZAK Udaleko Gazteria departamentuak urtero ematen dituen diru laguntzen bigarren deialdia egin du. Herriko gazteek edo gazte elkarteek sustatzen dituzten kultur jarduerak diruz laguntzea da helburua. Baldintzak hauek dira: eskatzaileak oñatiarrak izatea eta kideen erdia, gutxienez, 12 eta 30 urte artekoa izatea. Gaztelekuko informazio bulegoan eskaera orriak bete eta bertan aurkeztu behar dira, azaroaren 10a baino lehen. Udaberrian egin zen lehen deialdian *Algaraz*, *Zarramarra* eta *Txantxiki* familia elkarteak aurkeztutako zazpi eskaera diruz babestea onartu zuen udalak, eta orduan eman gabe geratu ziren 7.291 euro daude orain banatzeko.

Kiroldegian eskaladarako estruktura hornitu eta instalatzeko lizitazioa abian jarri du udalak

LIZITAZIOA Kiroldegia berritzeko lanen baitan, lehengo bi squash egokituko dituzte, eskaladarako gune berria sortuz. Gune hau lehengo rokodromoarekin komunikatuta egongo da eta, denera, 240m²-ko espazioa geratuko da eskalada praktikatzeko. Orain, kiroldegiko obren jarraipenerako batzordearen irizpena aintzat hartuz, gune horretarako estruktura hornitu eta instalatzeko lanak prozedura ireki bidez lizitatzeko prozesua abian jartzea erabaki du udalak, oinarri tekniko-administratiboak onartuta. Lizitazioaren gehieneko prezioa 93.000€-tan (BEZ barik) finkatu da, eta lanak egiteko epea 4 hilabetetan, gehienez.

77.000 kultur taldeen programak eta sorkuntza lanak diruz laguntzeko

DIRU LAGUNTZAK Udaleko Kultura sailak ia 77.000€ banatuko ditu herriko kultur taldeen artean. Alde batetik, 15 talde edo elkarteren programak babestuko ditu (Ganbara taldea, Oñatz, Txinparta, Olaiturri, Algaraz, Margo taldea....). Guztira 63.723€ banatuko ditu talde horien artean. Bestalde, sormen lanak sustatzeko atalean, udalak 12.800 euro banatuko ditu hainbat disko, bideoklip, liburu, antzezlan eta bestelako egitasmoak sustatzeko.

ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIAKON KONPONKETAK
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

Emakumeen Txokoa inauguratu dute udal liburutegian



Udal liburutegiko lehen solairuan dago Emakumeen Txokoa

Oñatiko Emakumeen Kontseiluaren proposamena aintzat hartuz, Emakumeen Txokoa egokitu dute udal liburutegiko lehen solairuan, eta pasa den astean inauguratu zuten, Liburutegien Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekitaldien baitan. Feminismoa, politika, zientzia, erlijioa, osasuna, psikologia... historian zehar eta arlo ezberdinetan emakumeek idatzitako edo emakumeak protagonista diren liburu eta bestelako dokumentuak aurkitu ahal izango ditugu bertan.

Emakumeen Kontseiluko ordezkariak adierazi zuten abiapuntu interesgarria izan daitekeela feminismoan hasi edo sakondu nahi dutenentzat. Udal liburutegiko zuzendariak azpimarratu zuen elkarlanaren eta saretze lanaren emaitza dela Emakumeen Txoko berria.

Joseba Arregi Martuteneko espetxera hurreratu dute

Joseba Arregi oñatiarra Martuteneko espetxera ekarri zuten urriaren 30ean. Koronabirusaren ondorioz hamar egun konfinatuta eman beharko ditu, bisitarik jaso ezinda, baina, esan bezala, Donostian dago jada, eta bertan beteko du geratzen zaion espetxealdia, bigarren graduan. Joseba Arregi 1992an atxilotu zuten Bidarten, talde terroristako kide izatea leporatuta, eta hamar urteko zigorra bete ostean, 2000. urtean Espainiaratu zuten. Egun 74 urte ditu eta 30 urteko kartzela zigorra betetzen ari da. Dagoeneko beteta dauzka zigorraren hiru laurdenak. Urte hasieran Alacantetik Asturiasera eraman zuten, eta orain Donostiara hurbildu dute.



Gaitzak jotako lau arbola moztu dituzte Santa Marina plazan

Santa Marina plazan dauden 32 ezketako lau bota egin ditu herriko lorategien mantenuaz arduratzen den enpresak. Zuhaitz hauen adarrak apurtu eta erori egiten zirela ikusita, tomografia azterketak egin eta lau zuhaitzek usteldura larriak zituztela ikusi zen. Kendutako arbolen lekuan lau ezki berri landatuko dituzte azaroan. Lanek 2.500 euroko aurrekontua dute (BEZ kanpo).



Elkarbizitzaren eta presoaren eskubideen aldeko ekimena, azaroaren 21ean



'Izan bidea, egin bidea' ekimenaren baitan, euskal presoaren eta iheslariaren etxeratzearen alde, eta elkarbizitza eta bakearen aldeko ekimen berria antolatu du Oñatiko Sarek. Xehetasun guztiak lotu gabe daude oraindik, baina martxatxo bat egitea da asmoa, oinez, korrika, bizikletan, patinetean edo bakoitzak nahi duen moduan. Ordu erdiko martxa izango da, eguerdiko 12:00etan hasita. Herriko pertsona edo kolektibo ezberdinek eramango dute kanpainaren ikurra, eta herriko plazan emango zaio amaiera ekitaldiari.

Martin Ramstedt da Lege Soziologia Institutuko zuzendari zientifikoa berria

Martin Ramstedt (Frankfurt, 1962) alemaniarra izango da Nazioarteko Lege-Sociologia Institutuko zuzendari zientifikoa hurrengo bi urteetan. 2013an hasi zen zuzenbidea eta antropologiako eskolak ematen Oñatiko lege-soziologia institutuan. Gainera, Gizarte Antropologiako *Max Planck* Institutuko ikerlaria da eta, aurretik, Europako Zientzien Fundazioko ikertzaile gisa lan egin zuen Leideneko eta Kopenhageko Asiako Ikasketen Institutuan, besteak beste.



smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

EGUR-LAN
AROSZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL / FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

KOMENI DA EZ AHAZTEA...

Amañur Zumalde, Unai Carmona, Garazi Santa Cruz eta Asier Ugarte

Azaroaren 8an 15 urte beteko dira orduko EAJ-EAren udal gobernuak Kasablankako Gaztetxea bota zuenetik. Orduko alkateak botako ez zuela esan eta gaueko txandak egiteari uzteko eskatu eta gutxira. Gaztetxerako geneuzkan asmoak jasoko zituen txostena aurkezteko eskatu eta gutxira. Influxenteak gu.

Segurtasunaren izenean bota zuten gaztetxea. Arratsaldeko manifestazioan ertzaintzaren partetik jaso genituen pilotakaden antzera.

Baina kikilduko ginela uste zuten arren, ilusio eta kemen gehiagorekin ekin genuen gure ametsaren bila. Eta etorri ziren okupazio gehiago, eta isunak, atxilotetak eta epaiketak. Eta, azkenik, San Martingo gaztetxea. Gogor borrokatu behar izan genuen, bi gaztek 5 eguneko gose greba bat egiteraino. Baina lortu genuen.

Ondoren, olatu berri bat etorri zen, indar eta gogo berriekin, eta lortu zuten Antixena, herri orok behar lukeen gazteentzako gune autogestionatu duin bat. Bide horretan, gure aukera autogestioa, autoformakuntza, elkar-ezagutza... izan dira. EAJ-ren erantzuna eskabadorak, isunak, polizia, atxilotetak... eta arriskuak bere horretan dirau. Ez da kasualitatea, Euskal Herri osoan Gaztetxeekiko duen fijasioa. Errotik moztu nahi ditu berearen guztiz kontrako mundu ikuskera duten gazteen dinamikak.

Gaztetxeak kolorea ematen dio herriko giroari, baina batzuek mundu grisa nahi...

Komeni da ez ahaztea.

LA TRICHERA INFINITA, OSCAR SARIETARA

Espainiako zine akademiak *La trinchera infinita* filma hautatu du 2020ko Oscar sarietarako. Nazioarteko pelikularik onenaren atalean lehiatuko da, eta Hollywood-eko akademikoen galbahea gainditzeko badu, Aitor Arregi, Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga alfonbra gorritik igaroko dira apirilaren 25ean.



MUSUKO SOLIDARIOAK

Gizonezkoek pairatzen dituzten gaixotasunei ikusgaitasuna eman eta ikerketarako dirua biltzeko asmoz, musuko solidarioak egin ditu Movember Oñatik, bailarako beste taldeekin elkarlanean.

10€-tan salduko dira Jon, Igone eta Sesiñena ileapaindegitan eta Bizipoz kafetegian. Musukoa erosten duten guztien artean, *Urrutxi Banaketak* enpresak emandako otar bikaina zozketatuko da hilaren 30ean. Salmentan bildutako diru guztia, ikerketara bideratuko da.



Movember taldearen musuko solidarioa

Mekalki
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es



Espainiako Itzulia Oñatin

Ez da ohikoa mundu mailako txirrindulari onenak gurean ikustea eta duela egun batzuk, horretarako aukera izan genuen. Udanatik behera, eta Arrasatera bidetan, ziztu bizian igaro zen tropela Oñatitik. Irunen abiatu eta Arraten amaitu zen koronabirusak atzeratutako Espainiako Itzuliko lehen etapa urriaren 20an.



NATXO SANTOS

OHAR ETA DEIALDIAK

► SOLDADURA TIG ETA MEKANIZAZIO IKASTAROA

Zuazola-Larraña institutuak langile eta langabetuei zuzendutako **Soldadura TIG** eta **Mekanizazio** ikastaroak eskainiko ditu Oñatin. Lanbide, Eusko Jaurlaritza eta Europar Batasuneko Gizarte Funtsaren laguntza dute eta %100 diruz lagundutako ikastaroak dira. Azaroan hastea aurreikusten da. Informazioa eta izen-ematea: 943 899 300

► ZAHARTZE AKTIBOARI BURUZKO HITZALDIA

Lege-Soziologia Institutuak antolatzen dituen 'IISL Talks' programaren baitan, zahartze aktiboari buruzko hitzaldia egingo da azaroaren 11n (17:30). 'Participación y empoderamiento: claves en el proceso de envejecimiento activo' da izenburua. Aitor Urrutiak (Deustuko Unibertsitatea) emango du hitzaldia, gazteleraz, eta online egingo da. Parte hartu nahi duenak m.mesonero@iisj.es helbidera idatzi behar du.

► ERRIGORAKO SASKIAK, INOIZ BAINO SOLIDARIOAGO

Nafarroako hegoaldeko euskalgintzari laguntzea helburu duen ERRIGORA ekimena hemen da berriz ere. Nekazari, ekoizle, euskaltzale eta kontsumitzaileen arteko auzolana eta elkarlanaren babesa duen ekimen herritarra da.

Urtero bezala, Nafarroa hegoaldeko oliba olio birjina estra eta kontserba-sortak eskuratu ahal izango ditugu ekoizleen jatorrizko prezioan. Hiru saski mota daude aukeran: **saski beltza** (55€) Nafarroa hegoaldeko produktuz osatua; produktu ekologikoz osatutako **saski berdea** (65€), eta gutiziak dituen **saski zuria** (75€).

Erosten dugun saski bakoitzaren %25 zonaldeko euskalgintzara bideratuko da, eta aurtan, gainera, Covid-19aren ondorioz beraien ekimen nagusiak antolatu ezinik geratu diren AEK, Seaska eta Sortzen-i laguntzeko ere balioko du. Ikusi aukeran dauden otarrak eta egin eskaera www.errigora.eus webgunean.



Zuntza
600 Mb
Simetrikoko

Mugikorra
7 GB
+ Del mugagabeak

IRAUNKORTASUNIK GABE

42 € HILEAN
BEZA barne

BETIRAKO

BANATZAILE BAIMENDUA

**KONTRATATU ZURE GUUK
ZUNTZA LIZKER
INFORMATIKA DENDAN**

Atzeko Kalea, 32, 20560 Oñati
943 09 06 00

guuk

ZUNTZA MUGIKORRA TB

BEZA barne. Eskaintza 2020/11/30ra arte egongo da indarran Euzkadin eta Nafarroan. Linea osagarriak edo 1GB ko doako Guuk tarifa: "Zuntza + Mugikorra" eskaintza hausten bada, linea osagarriak "Mugikorra Bakarrik" tarifa linea prezioak izango dituzte. GB eta deialdak murreratu egingo dira. 1GB ko doako Guuk tarifaren kasuan, prezio berria 6,9€/hil izango da. "Zuntza + Mugikorra" pakete bakoitzeko linea mugikorraren gehiengoa 400MB da. Linea nagusia kontsumitu hartu gabe. "Zuntza + Mugikorra" eskaintzak ez du iraunkortasunik edo zigorrik izango. "Mugikorra Bakarrik" kontratua: finko eta mugikorraren nazionalitateko del mugagabeak, 7GB eta 400MB rokin. Mugak hori gairatzen, abiadura 16 Kbit/s ia jaitako da. Itali ditzunon eman diezakezu baina zerbaitzuri, baina bideratutako 30 eguneko epean itzuli beharko duzu; bestela, 1216 ko zigor bat ordaindu beharko duzu (BEZA barne). Kontsumitu gainerako bakiak hemez: www.guuk.eus

OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

Gure ekintzen berri emango duen atala...

ARGI BAJUAREKIN ERE AURRERA EGIN DAITEKEELAKO

Ate guztiak irekiak ditugu Oñatin aisialdiko haur eta nerabeentzako zerbitzuetan Sotoa ireki berri baitugu duela gutxi. Eta Kuboa, Ludoteka eta Topalekua ere dagoeneko martxan baitaude.

Ikastetxetan bezala, gu ere konfinamendua bukatu zenetik gure funtzionamendua egokitu behar izan dugu, eta honela ari gara Gaztelekuan egoera berri honetan:

Izen eta abizenak jasotzen ditugu eguneroko parte-hartzea dokumentatua gera dadin. Gaztelekura sartzen diren heinean tenperatura hartzen diegu guztiori sukarrak ez dutela ziurtatzeko. Ondoren, gel hidro-alkoholikoaz eskuak garbitzen dituzte banan banan birusa uxatzeko haur eta gaztetxo guztiek.

Horrez gain, ratioak asko jaitsi ditugu. Aurrez gurekin 80 nerabe eta 80 haur egon zitezkeen guneeetan 28 haur edo nerabe egongo dira gehienez orain; hain beharrezkoa omen den tarte handiagoa dago neska-mutilen artean, beraz.

Haur eta gaztetxoak (6 urtetik gorakoak), nola ez, musukoarekin egon beharra daukate uneoro. Aldi berean eskuz-esku ibili daitekeen materiala (jolasak, kirolerako materiala, ...) murriztua daukagu lokal barruan. Sotoan aurrez eskatu beharreko txanda ezarri behar izan dugu, horrela Sotora etortzeko txanda whatssapez 653 59 45 16 zenbakian, edo Gaztelekuan bertan hartu daiteke. Kubora ere txanda sistema bidez datoz 7-12 urte bitartekoak, guztiek izan dezaten lekua bertan. Topalekuan txanda neurriekin momentuz soilik asteburuetan hasiko gara funtzionatzen.

Hori bai, txanda sistemak osasun neurriak eta errotazioaren bidez ahalik eta jende gehien sartu dadila bermatzen du, baina dagoeneko txanda bakoitzean ezarritako denbora baino ezin da egon Gaztelekuan. Pena da, baina osasun egoera petral honetan ez dago haurren errotazioa bermatzeko, eta ahalik eta gaztetxo gehiengana ailegatzeko beste erarik. Covid-19 gaixotasunarekiko berme handiagoz esku-hartzeko aukera eskaintzen digute baldintza hauek, baina aldi berean tristura ere sentitzen dugula aitortu beharra daukagu, lehengo Gaztelekuko gertutasuna, beroa, mugimendua, burrunba, ...faltan sumatzen dugulako. Neurri guzti hauek entzunda normala litzake Gaztelekuak haur eta gaztetxoak erakartzeko ar-gudio gutxi dituela pentsatzea, are gehiago bizi dugun momentu honetan pentsamenduak gris kolorekoak izateko joera izan dezaketelako nahi gabe.

Arrazoi hauengatik Gaztelekuko eta Ludotekako bonbilla baxu xamar egon daitekeenaren sentsazioa egon badaiteke ere, oraindik argia ematen ari garela ziur gaude. Hezitzaileok piztuta dagoela sentitzen dugu, ahalegin horretan gaude itxaropentsu. Are gehiago, gure baliabideen azken helburua hezitzailea dela ahaztu ezin dugunez, garai zail hauetan neska mutiletatik gertu egon beharra daukagulakoan gaude, eta pozik gaude gaztetxoetatik gertu egoteko aukera daukagulako, honelako egoera eta baldintza berezietan bada ere. Lehen egiten genituen gauza pila era berdinean egin ezin badira ere, beste asko egin ahal direlako, Bitartean elkarri entzun, elkarrekin egon, sentipenak elkar-banatu, elkarri galdetu, elkarrekin jolastu eta elkarrekin aspertu, sortu, nahastu, amestu, ...argi gutxiarekin ere egin daitezkeen ekintzak baitira eta horiekin eta beste batzuekin egin dezakegulako aurrera egoera hau irauli bitartean.



ATZO, ORAIN ... ETA GERO

Bat-batean, zerbait sortu da nire baitan, gerra osteko urteetan, 1940ko hamarkadaren hasieran, jaio ginenok izango dugun etorkizunari buruz idaztera bultzatzen nauena. Urte mordoia, 70 urtetik gora hartu dugu dagoeneko, eta azken estatistiken arabera 8-10 urteko bizi-itxaropena dugu.

Uste dut —iritzi subjektiboa da— gure ingurukoak, kuadrillakoak-eta, ondo bizi garela; gorriak ikusi ditugu, gorriak eta beltzak, baina ondo iritsi gara betetasunera. Gerra osteko gabeziek, frankismoak, gorabehera politikoek, eskola garaiko inposaketek eta beste hainbat faktorek izateko era bat eta mundu ikuskera bat markatu ziguten, gaur egun aldatu diren balio jakin batzuekin.

Gure ekintzetan, izan sozialak, politikoak, ekonomikoak edo dena delakoetan, altruismoa zen nagusi. Lanerako deitzen zigutenean, edozein lan izanda ere, hasi egiten ginen, aurrez ezer eskatu barik; lehenengo erakutsi egiten genuen zertarako gai ginen, eta gero eskatu. Halaxe zen orduan. Maristek, Arrasateko Eskola Profesionalak, kooperatiben hastapenak, batxilergoak, Aloña Mendik, neska-mutilek ... garai hartako ildoak markatzen zuten, gizarte eta politika arloko beste faktore batzuekin batera.

Guk ezagutu edo bizi izan dugun iraganaren ondorio gara. Horixe da lehenengo gogoeta.

Gaur egun, denok edo ia denok, seme-alabez eta ilobez josita gaudela, ondo bizi gara, esan dudan moduan, ilusio ezberdin edota kontrajarriekin, baina aurrera goaz, astiro, goieneko unera garamatzen etapa hau osatuz. Gure inguruko pertsonen multzoaren pisua arinduz doa, denborak aurrera egiten du ia



**Fernando
Mendiuren**

oharkabean, eta belaunaldi erreleboa ematen ari da. Hori da gure ORAINA.

Eta orain zer? Zer geratzen zaigu? Eramango gaituzten egunera arte zain egotea? Ezta pentsatu ere. Ez dut hori inola ere onartuko. Pertsonak gara, mundura etortzen garenetik joaten garen arte. Egia da, zalantza barik, lekua utzi behar diegula gazteei, baina guk laguntzen jarraitu behar diegu euren garapenean; beste era batera, baina aurrera, sofan etzanda geratu barik, soberan gaudela esan eta zurlora eramango gaituzten egunaren zain egon barik.

Isabel Allende txiletar idazle ospetsuaren abestiak zioen moduan: "Isiltasuna dago jaio aurretik, isiltasuna dago hil ondoren: bizitza, hondogabeko bi isiluneren arteko zarata baino ez da".

Errealitatea den bezalakoa da, baina eutsi egin behar diogu geure ekimenari, gure izaera eta gure egoerarekin bat datozen aktibitateekin, eta zerbaiterako deitzen badigute, han egon behar dugu, laguntzeko eta aholkua emateko prest, hori egiteko gai garelako. Eta, gainera, beste era bateko ekimenak ere izan ditzakegu, geure egoeraren araberrakoa betiere, izan ere:

"nik ere badut eskubidea mundu bidezkoago baten, berdintasunean, giza eskubideetan, pertsonen askatasunean sinesteko; nirea ere bada herriaren eta herriarentzako gobernua". Horretan oinarritzen da ilusioz bizitzeko nire eskaintza.

Kosmosaren dimentsioa eta historia osoa kontuan hartzen badugu, hutsaren hurrengoak gara; gure heriotzaren ondoren denak berdin jarraitzen du, sekula existitu ez bagina bezala. Gurekin gogoratzen diren bitartean biziko gara. Gero, horixe ere ez. Beraz, aurrera!

Izan jasangarri

#Izanjasangarri

Eguneroko bizitzan,
ohitura aldaketa txikiek,
gure bizitzetan aldaketa
nabarmenik suposatzen ez
badute ere, ingurumenean
epe ertain eta luzean,
aldaketa positiboak
dakartzate

✉
kontsumojasangarriaonati@
tutanota.com

Kontsumo jasangarri taldea

Zer ekarriko dizuegu? Zer ikusiko duzue?

1

Baliabideen erabilera eraginkorra eta jasangarria bultzatzen dituen ideia eta ariketa multzoa. Zuen etxetan gauzatzeko adibide praktikoak.

2

Gure bizimodu eta kontsumo-sistemak ingurugiroan duen talkari eta eragin hori ekiditeko dauden informazio-iturrien berri (Liburutegian aurkitu daitezkeen proposamenak).

3

Gure baitan ematen diren kontsumoaren inguruko datu esanguratsuak.

4

Kontsumo jasangarriaren ildoan, herrian, Euskal Herrian edo nazioarte mailan egiten diren ekintza edo ekimenak.



'Oñatiko hika poltsikaran'

Oñatiko hitanoari buruzko oinarritzko informazioa eta aditz-taulak biltzen dituen liburuxka plazaratu dute **Ingo xonau!** proiektuaren baitan



Hikalagunen artean, hika ikastaroetan eta ikastetxeetan banatuko dute liburuxka, baina udal euskaltegian ere eskuratu ahal izango da, eta Oñatiko udalaren webgunean ere eskuragarri egongo da formatu digitalean

Ingo xonau! proiektuaren asmoa Oñatiko noka (emakumezkoen hitanoa) biziberritzea da eta, horretarako, **Oñatiko hika poltsikaran** liburuxka prestatu eta plazaratu berri du. Bertan, Oñatiko hitanoari buruzko oinarritzko informazioa eta aditz-taulak datoz.

Formatu txikiko liburuxka da; hamar zentimetro luzeran zein zabaleran, baina mimo handiz egindakoa. Badihardugu euskara elkarteko Idoia Etxeberriak atondu du, Roberto Altuna euskaltegiko irakaslearen laguntzarekin, eta Mirari Sagarzazu marrazkilariak egin ditu diseinua eta ilustrazioak. Guztira 32 orri ditu. Batetik, hitanoari buruzko argibideak eta informazio orokorra dator eta, bestetik, aditz-taulak: adizki nagusiak eta aditz-trinkoak.

Liburuxkaren 2.000 ale ateratu dituzte eta, besteak beste, hikalagunen artean, hika ikastaroetan eta ikastetxeetan banatuko dituzte. Udal euskaltegian ere egongo da eskuragarri. Bestalde, Oñatiko udalaren webgunean eta Badihardugu elkartarenean liburuxkaren bertsio digitalak eskuratu ahal izango dira.

'OÑATIKO HIKAREN TXULETIA' ETA IKASTAROA

Liburuxkaz gain, 'Oñatiko hikaren txuletia' ere ateratu du Ingo xonau! ekimenak, aldizkari honekin batera banatu dena, hain zuzen. Formatu txikikoa hau ere, poltsan edo poltsikoan erraz eramateko modukoa. Liburuxkaren bertsio laburra, nolabait esateko. Hitanoko aditz eta adizki nagusiak bildu dituzte bertan, gehien erabiltzen direnak.

Gogoratu, bestalde, aldizkari honen 6. orrian aipatu bezala, emakumeentzako lehenengo hika ikastaroa hasiko dela azaroaren 10ean, Oñatiko Jabetze Eskolaren baitan.

BIDEOAK: 54 HERRITARREN TESTIGANTZEKIN LAU BIDEO OSATU DITU INGO XONAU! EKIMENAK

'<https://www.youtube.com/user/ahotsak>' helbidean daude ikusgai



Ingo xonau! erreportala



Hika zeinekin?



Emakumeen hika berreskuraketan



Zer egin emakumeen hika modan jartzeko?

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

8 urte zituela hasi zen Xabier (Oñati, 1998) bizikletan. Aloña Mendiko maila guztiak igaro zituen eta 2016a izan zen emaitza aldetik, bere urterik emankorrena. Gazte mailako azken urtean lau garaipen eta erlojupekoan Gipuzkoa eta Euskadiko azpitzalduna izan zen. Herriko kirolari onena izendatu zuten.

Gerora, lau urte egin ditu afizionatu mailan. Ampo eta Laboral Kutxaren estrukturan. Gipuzkoako erlojupeko txapeldun (2017), Euskadiko txapeldun (2018) eta Espainiako zazpigarrena izan zen errepidean eta erlojupekoan (2019), besteak beste.

Azken bi urteotan, lesioek eta osasun arazoek erabat gelditu dute bere progresioa.

X. MURGIONDO **TXIRRINDULARITZA** G. EROSTARBE

AGUR LEHIAKETARI

Arazo ezberdinak tarteko, ziklismoa utziko dutela jakinarazi berri dute Oñati Irratian, Xabier Murgiondo eta Garazi Erostarbek. Azken urteetan, herriko erreferentzia nagusi izan dira kirol honetan.

Cueva eta Madina podiumean

> Aloña Mendiko ziklistek maila oso altua eman dute denboraldi bukaera honetan.

Egutegiko azken probetan esaterako, Unai Cuevak junior mailan eta Aimar Madinak kadeteetan, emaitza esanguratsuak lortu dituzte. Cuevak hirugarren postua lortu zuen Mendaroko Gipuzkoako txapelketan eta Madinak berriz, Lazkaoko Hesparru proba irabazi zuen.

2015ean hasi zuen bere ibilia Garazik (Oñati, 2000). Estreineko urtean, Gipuzkoako ziklokros txapelduna izan zen.

Caja Ruralera salto egin zuen 2016an eta besteak beste, Gipuzkoako txapelketa eta Euskadiko erlojupeko zilarrezko dominak lortu zituen. 2017an, Gipuzkoa eta Euskadiko azpitzapelduna izan zen erlojupekoan eta bere kirol ibilbideko lehen garaipena lortu zuen Valdecillan.

2018an lortu zuen bere emaitzarik onena; Espainiako azpitzapeldun izan zen Sorian.

Iaz, Muriaseko ziklista bezala, Aguraineko lasterketa irabazi zuen. Aurten, Sopela taldean (UCI maila) arituko da. Konfirmenduak eragin zuzena izan du bere erabakian.



Entzun
elkarrizketak
<< hemen >>



COVID-a eta herriko kirol zerbitzuak

Alarma-egoera honen aurrean, Fitness jarduerak bertan behera uztea erabaki zuen udalak urriaren 23an. Jaurlaritzako araudi berriak baina egoera aldatu, eta ekintzak berriz martxan jartzea ahalbidetu zuen. Hori

bai, egoera berrira moldatutako saioak izango dira eta besteak beste, taldeak 6 pertsonako azpizaldetan banatu dira.

Bestalde, Oñatiko udalak Bergarako igerilekuak erabiltzeko akordioa sinatu berri badu ere, egoera honetan, ezin izango da aipatu instalazioa erabili.

MENDIA

Garai bigarren Covatillako proban

Ia bi urtez ultra lasterketarik egin gabe egon ostean, maila altuan itzuli zen lokin Garai distantzia luzeko mendi lasterketara.

Urriko lehen asteburuan Béjar-en (Salamanca) ospatu zen La Covatilla lasterketan (77 km. + 4500 m.) bigarren postua lortu zuen oñatiarrak.



MENDI DUATLOIA

Euskal Herriko txapeldun

Euskal Herriko mendi duatloi txapelketa irabazi du Ainara Uribarrik, 25 urtez azpiko emakumezkoen kategorian. Urriaren 10ean ospatu zen proba Ibarran eta giro hotz eta ibilbide lokaztua izan zuten parte hartzaileek.

6 kilometro korrika aurreneko sektorean, 16 mendi bizikletan eta proba amaitzeko, beste 1,5 kilometro egin zituzten korrika lehiakideek. Oñatiar dexente izan ziren.



© Fernan Puras



2021
denboraldiko
bizikletak!



BIZIKLETAK - PATINETEAK - KIROL EKIPAZIOAK

oñabike.com

Oñati 25, Oñati
Tel.: 943 78 05 65



kasketak eta lan kontuak tarteko, nagusien mailan lau pilotari baino ez ditu aurten Aloña Mendik, eta entrenamendu saioak behar bezala egiteko zailtasunak dituztela ikusita, Lazkaoko Antzar pilota elkartearekin entrenatzen hasia erabaki du Iñigo Erle Perezek. "Bai, pilotan zentratuta jarraitu nahi dut, oraingoz, eta hemengo egoera ikusita eta Josu Osa entrenatzailearekin hitz egin ostean, Lazkaora joatea erabaki dut", azaldu digu 19 urteko atzelariak. "Aurrena, beste klub bateko pilotariren bat hona ekartzen saiatu ginen, baina ez genuen inor aurkitu, eta aukera bakarra neu kanpora irtetea izan da".

Lazkaoko Antzar elkarteak Gipuzkoan gaur egun dagoen klubik sendoenetako bat da, eta leku egokia izan daiteke Iñigorentzat ikasten eta hazten jarraitzeko. Inguruko herri txikietako pilotariak ez ezik, bizkaitar eta nafar batzuk ere ari dira bertan, Asier Mintegi pilotari ohiaren esanetara.

Astean bi entrenamendu saio egiten dituzte, Iñigok azaldu digunez. "Asteleheneretan teknika lantzen dugu. Pilotari bakoitzaren ezaugarri eta beharretara egokitutako ariketa espezifikoak egiten ditugu. Entrenamendu saio motzagoa izaten da, baina trinkoa. Asteazkenetan binakako partiduak jokatzen ditugu, asteburura begira". Horrez gain, astearte eta ostegunetan lan fisikoa egiten saiatzen da Iñigo, Oñatin, bere kasa, Mikel Aramendia lagunak programatutako ariketak eginez.

Bi hilabete baino ez dira Lazkaon hasi zenetik, eta goiz da oraindik ondorioak ateratzeko, baina gustura ari dela diosku. "Konfinamendu ostean lan espezifikoak egiten ibili nintzen Josu Osarekin; uda partean lan dexente egin genuen eta hobekuntza handia igarri nuen. Lazkaon



Ilusioz hasi du denboraldi berria Iñigo Erle Perez pilotariak.

PILOTA NAGUSIEN GIPUZKOAKO LEHEN MAILAN LEHIATUKO DA IÑIGO ERLE

Hazten jarraitzeko momentua

Lazkaoko Antzar pilota elkartearekin hasi da entrenatzen eta nagusien Gipuzkoako lehen mailan lehiatzeko aukera izango du aurten Iñigo Erle pilotari oñatiarrak.

ere ari naiz teknika hobetzen eta, hortaz aparte, erritmo handiagoan jokatzerari ohitzen; 1. mailan beste erritmo batera jokatzen da, eta horretara moldatu beharra dago". Eta, horretarako, teknika ez ezik, fisikoa ere landu beharra daukala ikusi du Iñigok. "Bai, batez ere hankak indartu beharra daukadala ikusi dut, arinago ibiltzeko eta lehen mailako erritmoan aritu ahal izateko".



Gainerakoan, eskuinarekin duen kolpea da bere dohain nagusia, eta ezkerrekin ere politto moldatzen da; "azken hilabeteetan Josu Osarekin egindako lanari esker, asko hobetu dut ezkerre".

GIPUZKOAKO LEHEN MAILAN

Orain dela bi urte Gipuzkoako 3. mailako txapelketa irabazi zuen Iñigok, Ander Biainekin bikotea osatuz, eta iaz 2. mai-

**«Lehen mailan
erritmo handiagoan
jokatzen dela
ikusten ari naiz»**

**«Teknika ez ezik,
lan fisikoa ere egin
behar da lehen
mailako erritmoan
jokatu ahal izateko»**

INIGO ERLE PEREZ

Antzar taldeko pilotaria

Ian aritu ziren. Aurtan, baina, koska bat gorago igo eta Gipuzkoako 1. mailan jokatzeko aukera izango du Lazkaoko Antzar elkartearen elastikoa defendituz—Ohorezko maila dago gainetik—. "Lazkaok bi plaza ditu lehen mailan eta, aurtan, Covid-19a dela eta, balizko konfinamendu egoe-

rei aurre egiteko, hiru pilotari gaude talde bakoitzean, eta txandaka ari gara".

Orain arte bi partidu jokatu ditu Oier Larrañaga zumaia-rrarekin bikotea osatuz, eta gogorak izan arren, pozik dago egindako lanarekin. "Irailean etxeratuta egon behar izan nuen 10 egunez Covid 19-aren ondorioz, eta nahi baino gehiago kosta zait erritmoa hartzea. Hala ere, aurtengo helburua ez dut oso goian ipini nahi; lehen mailan pilotari eta bikote sendoak daudela ikusten ari naiz eta, beraz, kategoria honi neurria hartzea izango da aurtengo helburua".

Tamalez, oraingoz ezingo dugu Oñatin jokatzen ikusi, Aloña Mendik ez daukalako ordezkariik lehen mailan, baina datorren urtean Herri Arteko Pilota Txapelketa jokatzen bada, herriko elastikoa jantziko du Iñigok. ■



Frontisa metro erdi altxatuko dute

> Pilotalekuko frontisa eta ezker orma altxatzeko lanak egiten hasiko dira azaroaren 9an. Pilotalekua neurri ofizialek egokitzea da helburua eta, horretarako, metro erdi altxatuko dute frontisa eta ezker orma, 7. koadroraino. Hori egin ahal izateko, ezker ormaren gainaldeko leihoak kenduko dituzte. Ormak altxatzeaz gain, zorua eta kontra-kantxako txapa eta frontis inguruko toldoa berritu eta ormak margotuko dituzte. Abenduaren 15erako lanak amaitzea espero dute.

DUATLOIA

Bikuña Espainiako txapeldun

Espainiako Duatloi Txapelketa irabazi berri du Miren Josune Bikuñak, 45-49 kategoria-riko emakumezkoen artean.

Sorian ospatu zen txapelketa urriaren 24an eta baldintza oso bereziak izan zituen proba izan zen. Koronabirusak eraginda, neurri oso zorrotzekin lehiatu behar izan zuten eta proba, banakako erlojupeko gisa antolatu zen. Sestao Triatloi taldeko kideak adin-tarte guztietako bigarren denborarik onena markatu zuen helmugan.



MOTORRA

Xabi Aiaastui pilotu onenen artean

Debut borobila egiten ari da Xabi Aiaastui Enduro eta Cross Countryan. Junior mailako pilotu azkarrenen artean dagoela erakutsi baitu orain arte lehiatu dituen lasterketa guztietan. Garaipen batekin hasi zuen denboraldia martxoan Villarcayon eta harrezkero, Gueñesen ere bere kategoria-riko onena izan zen. Nartarteko Enduro



Indoorrean hirugarrena izan zen eta Lumbierren azkenik bigarren. Honenbestez, Cross Countryan lehiatu diren bi lasterketak irabazita, kategoriako Euskadiko pilotu onena izan da oñatiarra.

MENDIA

Mendi federatu kanpaina abian

Aloña Mendik 2021eko federatu kanpaina abian jarriko du datozen egunetan. Aurtengo federatuei automatikoki berrituko zaie txartela baldintza berberetan, kontrakoa adierazi ezean. Aldaketak egiteko edo federatu berriak tramitatzeke, mendi saileko ordezkariak elkarteke bulegoan egongo dira **azaroaren 11, 12, 17 eta 18an** (19:00-22:15). Hala ere, gauden egoeran egonik, tramiteak emailaz (alonamendi.mendi@gmail.com) egitea eskatu dute, **azaroaren 21a** baino lehen. Bidali beharreko datuak: izen-abizenak, jaiotze data, helbidea, NAN zenbakia, kontu konrronte zenbakia, telefonoa, e-maila eta nahi diren estaldura mota eta gehigarriak adieraziz.

JUANJE MARGOAK

T. 627 818 247

Zure etxebizitzaren hobetzeko prest

Amara igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Baserrien eta eraikinen zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE)
-Ilogailu eta 0 kotara proiektuak -Fatxadak isolatzeko proiektuak

tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati



OÑATIKO XLII.

Musikegunak

- Oñatiko udaleko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kultura sailek antolatuta.
- Emanaldi guztiak Santa Ana aretoan izango dira, 19:00etan. • Sarrera, 8€.

Egitaraua

AZAROAK 8

METAMORFOSIA

Garikoitz Mendizabal (txistua)
German Ormazabal (pianoa)

AZAROAK 15

PIAZZOLAberdi

Iñaki Alberdi (soinujolea),
biolina, gitarra klasikoa eta
kontrabaxua lagun duela

AZAROAK 22

AMERRI

Poesia, musika eta bertsoa,
Andoni Salamero, Mixel Ducau,
Caroline Philips eta Andoni
Egañaren eskutik

AZAROAK 28

LAUBURU

SAX QUARTET

Musikeneko jatorri ezberdineko
lau musikari gaztek osatutako
goi mailako laukotea

Hemen dira Oñatiko 42. Musikegunak. Musika klasikoa herritarrei helarazteko asmoz sortu ziren jardunaldi hauek, eta Euskal Herrian biraka dabilen goi mailako musikariak ekarri ohi ditu Oñatira, instrumentu eta espresio-modu berriak eskainiz. Aurtengo ere, lau kontzertu ederrez gozatzeko aukera izango dugu azaroko igandeetan.

TXISTUA ETA PIANOA

Txistua eta pianoaren arteko fusioan oinarritutako da lehenengo emanaldia (azaroko 8). Txistuak eta pianoak izan duten bilakaeraren isla da emanaldi hau. Bi musika tresnen arteko metamorfosia. Txistuaren historian badago une bat, tradizioa, dantza eta folklorea alde batera utzi gabe, ganbara musikara hurbiltzen dena, pianoa bidaide duela.

Txistua eta pianorako, bertako eta kanpoko musikagileek konposatutako obrak interpretatuko dituzte Garikoitz Mendizabal txistulari bikainak eta German Ormazabal pianoa joleak.

Bigarren kontzertuan (azaroko 15) Iñaki Alberdi soinujole irundar handia etorriko da Oñatira. Enekoitz Martinez

(biolina), Alex Garrobé (gitarra klasikoa) eta Gonzalo Tejada (kontrabaxua) lagun dituela, Astor Piazzolla (1921-1992) bandoneon-jotzaile argentinarren obrak joko ditu, besteak beste.

POESIA, MUSIKA ETA BERTSOA

Azaroaren 22an *Amerri* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dugu. Andoni Salamero olerkari zumarragarra, Mixel Ducau eta Caroline Philips musikari baionarrak eta Andoni Egaña bertsolari zaraiztarrek ondutako ikuskizuna da. *Ama*-ren metaforaz baliatuz, sentiberatasunetik, samurtasunetik eta ulermenetik pertsona bakoitza den *Herria* ikusteko egitasmo berezia da *Amerri*, poesia, musika, prosa poetikoa eta bertsoa uztartzen dituen. Herriko musikari eta bertsolariek ere parte hartuko dute saioan.

Aurtengo Musikegunak borobiltzeko, Musikeneko goi mailako lau saxofoi jole etorriko zaizkigu: Laurie Curutchet (saxofoi sopranoa), Claudia Llauredó (saxofoi altua), Andrea Castaño (saxofoi tenorea) eta Raúl Pérez (saxofoi sopranoa). XX. mendeko obrak interpretatuko dituzte.

Musikegunetako
BONOA

Udaleko kultura sailari esker, Musikegunak jardunaldietako lau kontzertuetarako BONOa eskuratzeko aukera egongo da aurtengo, **25 eurotan** (emanaldi bakoitzeko sarrera arruntak **8 euro** balio du). www.oñati.eus webgunean eta *Txokolateixan* eskuratu ahal izango dira bonoak.



Bere lehen diskoa aurkeztuko du Mila Modu taldeak azaroaren 13an

Azaroaren 6an kaleratuko da *Mila Modu* taldearen lehen diskoa (*Absurdoaren paradisua*) eta astebete beranduago, hilaren 13an, kultur etxeko zine aretoan aurkeztuko dute modu akustikoan. Bi saio eskainiko dituzte (18:00 eta 20:00).

Xabi Yanizek (gitarra eta ahotsa) 2019an abian jarritako proiektua da *Mila Modu*. Gaztea maketa lehiaketako finalista izan zen *Boza free* izeneko lehen single-a plazaratu zuen, *Hor Konpon* taldean kide izan zituen Andoni Campos (baxua) eta Oscar Arlanzonekin (bateria), eta orain lehen diskoa plazaratuko dute. Sei abesti biltzen ditu lan berriak, melodikoak eta indartsuak. Sarri-nandiaren eta Oñatiko zenbait idazle eta bertsolarien testuekin osatu dituzte kantak. Euskal Herriko dendetan eta plataforma digitaletan eskura daiteke.

BERATU JAIALDIA



Los Sara Fontan



Gaizka Isunza



Hakima Flissi



Joseba Irazoki



SARRERAK: www.oñati.eus webgunean
eta Txokolateixan daude salgai

Martxoan egitekoa zen, baina Covid-aren ondorioz bertan behera geratu zen **Beratu Jaialdia** azaroaren 4tik 8ra egingo da, beharrezkoak diren osasun eta segurtasun neurriak hartuta. Egoera ez da erraza era honetako jaialdi bat antolatzeko, baina musika eta sortzaileenganako konpromisotik eta elkarlanetik aurrera egitea erabaki dute antolatzaileek.

Martxorako iragarritako zegoen kartelari eutsi nahi izan diote eta, hala, bost kontzertu ederrez gozatzeko aukera izango dugu igandera bitartean.

► LOS SARA FONTAN + SUA

Sara Fontán biolin-jotzaileak eta Edi Pou bateria joleak osatzen duten bikote kataluniarrak inprobisazioa, punk-a, rock-a eta melodien arteko nahasketatik sortutako doinuak eskainiko dizkigute.

Sua talde bizkaitarrak (jazko Gaztea Maketa lehiaketako irabazleak) *Ordu beltzak* izeneko bere lehen lan luzea aurkeztuko du.

► GAIZKA ISUNZA + AITOR ETXEBARRIA

Audience taldean ezagutu genuen Gaizka Isunza bere bakarkako lehen lana aurkeztera etorriko da, eta Etxeberriak *Nihilism Part 1* diskoa aurkeztuko du, giro zinematografikoak sortzen dituzten abestiek.

► HAKIMA FLISSI

Talentu handiko abeslari bilbotarrak erritmo urbanoetara eramango gaitu, *soul*, *R&B*, *reggae*, *funk* edo *afrobeat* estilok nahastuz.

► JOSEBA IRAZOKI

Musikari beratarra bakarlarik gisa ariko da gitarra lagun duela.

Hakima Flissiren eta Joseba Irazokiren kontzertuak dohainik dira, baina txartela eskuratu behar da.

Aurtengo *Beratu* jaialdiko playlist-a ere entzun dago helbide honetan: <https://linktr.ee/beratujaialdia>

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta
www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan

MUSIKA

AZAROAK 6 / 19:00

LOS SARA FONTAN + SUABeratu jaialdiko kontzertua (7€). **Santa Anan.**

AZAROAK 7 / 19:00

GAIZKA ISUNZA + AITOR ETXEBARRIABeratu jaialdiko kontzertua (7€). **Santa Ana aretoan.**

AZAROAK 8 / 13:00

HAKIMA FLISSIBeratu jaialdiko kontzertua. Doan. **Lazarraga lorategian** (eguraldi txarrekin Gaztelekuan).

AZAROAK 8 / 18:00

JOSEBA IRAZOKIBeratu jaialdiko kontzertua. Doan. **Gaztetxean** (eguraldi txarrekin Gaztelekuan).

AZAROAK 8 / 19:00

METAMORFOSIAGarikoitz Mendizabal txistularia eta German Ormazabal piano jolearen kontzertua (8€). **Santa Ana aretoan.**

AZAROAK 13 / 18:00 eta 20:00

MILA MODUMila Modu taldearen disko berriaren aurkezpena. (3€) 20:00etako emanaldirako sarrerak agortuta daude. **Kultur etxeko zine aretoan.**

AZAROAK 15 / 19:00

PIAZZOLLAberdiIñaki Alberdi soinu-jolearen kontzertua, Enekoitz Martinez (biolina), Alex Garrobé (gitarra klasikoa) eta Gonzalo Tejada (kontrabaxua) lagun dituela (8€). **Santa Ana aretoan.**

AZAROAK 22 / 19:00

AMERRIMixel Ducau eta Caroline Phillips musikariak, Andoni Salamero olerkaria eta Andoni Egaña bertsolariaren ikuskizuna (8€). **Santa Ana aretoan.**

AZAROAK 29 / 19:00

LAUBURU SAX QUARTETMusikeneko lau saxofoi jole gazteren kontzertua (8€). **Santa Ana aretoan.**

HITZALDIAK

AZAROAK 11 / 19:00

Eau de CAF

CAF enpresa euskaldunak Jerusalem eta Palestinako

lurralde okupatuak lotuko dituen tranbia eraikitzeke Israelgo gobernuarkein sinatutako akordioari buruzko hitzaldia, Eau de CAF plataformaren eskutik. **Gaztetxean.**

AZAROAK 20 /

OÑATIKO INTSUMISOAKErnaik antolatuta, intsumiso izandako zenbait herritarrek beraien borroken eta esperientzien berri emango dute. **Gaztetxean.**

ZINE EMANALDIAK

AZAROAK 17 / 18:00 eta 20:00

'2 URTE ETA 4 HILABETE' DOKUMENTALAErnaik antolatuta, Lander Garroren dokumentala ikusteko aukera. Derrigorrezko sodaduskaren aurka borrokatu zuten sei lagunen istorioa kontatzen du. **Kultur etxeko zine aretoan.**

IPUIN KONTAKETAK

AZAROAK 26 / 18:00 eta 18:45

IPUIN MUSIKATUAKOsetgun Kontalariak ekimenaren baitan 6 urtetik gorako haurrentzako saioa, Ameli, ipuinen jostunaren eskutik. Aforoa mugatua denez, bi saio egingo dira (10 ume saioko). Gonbidapenak udal liburutegian, hilaren 16tik aurrera. **Haur liburutegian.**

ALT XORRAREN BILA

AZAROAKO IGANDEETAN / 11:00

ARANTZAZUKO ALT XORRAREN BILAArantzazuko Parketxeak antolatuta, Informazioa eta izen-ematea: arantzazu@gipuzkoanatura.eus / 943782894 / 699335183. **Parketxean.**

ILUNTZE MOREA

AZAROAK24

AZAROAK 25-eko leloak prestatu eta pankartak egitera bideratutako iluntze morea.



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezo Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia

Ostiral, asteburu eta jai egunetan
baserriko agia,
egurrezko labea egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



'DUT' LIBURUAREN AURKEZPENA

AZAROAK 18 / 18:30



DUT (1993 - 2008) Hon-darribiko rock taldearen inguruan Pablo Salgadok idatzi duen liburuaren aurkezpene. Euskal punk oldarraldiaren ondoren sortu zen taldea, guda baten erdian oraindik ere, eta ez zieten horiei entzungor egiten, ez iritzia emateari, ezta inguratzen zituzten injustizien aurrean posizio bat hartzeari ere. *Antixena* gaztetxean.

LABURMETRAI RALLYA

AZAROAK 14

Bizi dugun pandemiak baldintzatutako edizioa izango bada ere, hilaren 14an egingo da Oñatiko Laburmetrai Rallya. Izen ematen duten lehen hogeitasei taldeek parte hartu ahal izango dute. Aurten ez da zuzeneko emanaldirik eta bozketarik egingo, eta azaroaren 15ean (17:00) streaming bidez ikusi ahal izango dira aurkeztutako lanak. Informazioa: *olr.antolakuntza@gmail.com*.



Hileko gomendioa

Zergatik musikatu da emakumezkoen hain testu gutxi euskal kantagintzan? Anjel Lertxundik aipatu zion hausnarketa Antton Valverderi eta lanari ekin zioten. Bost poeta, bost poetika eta zortzi poema. Poesia eta musika bilduta. Kantatu ez diren hitzen musika.

ZINEA



Azaroak 5 - 8

ZINE KLUBA:

Falling
NAGUSIAK:
Regreso a Hope
Gap

GAZTETXOAK:
Como perros y
gatos 3: patas unidas



ORDUTEGI BERRIA

Zine-kluba: Osteguna (20:00)

Nagusia: Ostirala, larunbata eta igandea (20:00). Astelehena (19:30 / ikuslearen eguna)

Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (17:00)

Azaroak 19 - 22

ZINE KLUBA:

Vitalina Varela
NAGUSIAK:
El palacio ideal
GAZTETXOAK:
Las brujas



Azaroak 12 - 15

ZINE KLUBA:

Nunca, casi
nunca, a veces,
siempre
NAGUSIAK:
Erlauntza

GAZTETXOAK:
Stardog eta Turbocat
Oharra: azaroaren 13an ez da emanaldirik egongo



Azaroak 26 - 29

ZINE KLUBA:

Corpus Christi
NAGUSIAK:
El año que
dejamos de
jugar
GAZTETXOAK:
Trolls 2: La gira mundial



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ **943 78 21 16**

Azaroak 6, 7, 8, 16, 17, 25 eta 26.
Abenduak 4, 5 eta 6.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ **943 78 01 22**

Azaroak 1, 9, 10, 27, 28 eta 29.
Abenduak 7.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ **943 78 05 58**

Azaroak 2, 3, 11, 12, 20, 21, 22 eta 30.
Abenduak 1, 8, 9 eta 10.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ **943 78 11 28**

Azaroak 4, 5, 13, 14, 15, 23 eta 24.
Abenduak 2 eta 3.



MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZA ALOKAGA Aozaraza kalean etxea errentan ematen da. Deitu: 634 896 206

GARAJEA EROSI Honako kaleetan edo inguruan garajea erosiko nuke: Portu, Lope de Agirre, Bakardadeko Ama, Mendiko Kale eta San Juan kale. Telefonoa: 688 304 704.

ETXEBIZITZA ALOKAGA Jacan, eski denboraldirako. Herri erdialdean dago. 943781860 / 659291684.

IRAKASLEA BEHAR DA Klase partikularrak ematen dituen pertsona baten bila nabil. WhatsApp: 652 756 052.

ODOL ATERALDIA

AZAROAK 13 / 17:00-19:00
Enpresagintza fakultatean



TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





(*) Itten: arrastua, pistia

>> INGO XONAU (3)

USARIXUARI BEGIRA

Amaia: Hi lagun artian haguengan, zela egitten dok berba?

Jon: Mutillakin hika, eta neska gehixenakin zuka.

A: Eta hori zergatik dok, ba?

J: Etxakiñat, ba, zela esplikau! Guri halaxe urteten xoskun, hortaz asko pentsau barik!

A: Baiña, arrazueren bat egongo dok, ba, hor? Pentsau dok sekula?

J: Asmau egin, ba! Gu baiño zaharraguak guri hika egitten xoskunai, eta guk be halaxe jarraitu xonagu, hor etxagon besterik! Baiña egitten dogunian, ixixa betik mutillakin, lehen be esan donat!

A: Eta nerekin zergatik egitten dok, ba, orduan hika?

J: Konfiantzaia dakotelako, hirekin beste modu baten etxostanan urteten!

A: Eta Edurnerekin ezta kok konfiantzarik ala?

J: Bai, baiña ez hainbeste; izan be, harekin gutxiagotan egoten naun, eta etxostanan urteten hain samur! Gaiñera, zuen artian betik zuka ibiltten zarai!

A: Bai, kaletar-kaletarra dok-eta... araoztarra balitzuk, seguru egingo gekela hika!

Eta aitta-amakin edo aittajun-amandriakin zela egitten dok?

J: Hareikin sekula be ez hika. Neri aittak egitten xostan, baiña nik berari sekula santan be ez, eta amari igual, ezta okurriu bel! Aittajunak eta amandriak egitten xostanai, baiña nik eurai burutik pasau be ez!

A: Bai, bai, halaxe dok usarixua. Hi beste kontu bat, badakik zela enterau nintzan Pello eta Mirari nobixo hasi zirala?

J: Zela jakingo xonat, ba? Ideiarik be etxakonat!

A: Ba, konturatu nintzalako etzirala hika ibiltten, zukara pasau zittuan, eta esan ñuan nere artian: 'hemen baxagon zeozer!' Eta horixe zuan, nobixo hasi zirala!

J: Ba, ni enaun orainddiok horrekin fijau!

A: Bai, ixillian xakuain, baiña nik laister igarri ñostian!

J: Emakumiak betik izan zarai argixaguak... gu Andartora begira egoten gaittun!



>> BILATU BERBA HONEIN SINONIMUAK:

- | | |
|---------------|--------------------------|
| 1. Bentia | A. Aldapa, erripa, malda |
| 2. Zailla | B. Saltokia |
| 3. Samurra | C. Elkartea |
| 4. Aldatsa | D. Seina |
| 5. Txaanpiña | E. Guda |
| 6. Kartzelia | F. Gaitza |
| 7. Gerria | G. Ostatua |
| 8. Dendia | H. Espetxea |
| 9. Soziedadia | I. Erraza |
| 10. Umia | J. Elgorria |

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Murgialdaiko ganaduak

Aspalditxo azaldu zan lehenengo aldiz **Murgialdai Kontzejupetik** aldizkariko atal honetan; 1996ko bagillian, hain zuzen be. Baserri onduan egon zan XVI. gizaldiko **San Andres** ermittiari buruz geniharduen, XVII.nian **Asentzio adbokaziñua** hartu ebena eta 1906xan gaur egungo kokalekura aldatu zana. Baserrixak berak be itxuraldaketa nabarmena izan eben handik gutxira, orduko fotografixan garbi samar ikusi leikienez. Dana dala, **ermitta zaharraren harlandu batzuk baserri barriko atia moldaitteko** ebaliz ziran. Orain dala sei urte, berriz, Aita **Fermin Altube** frantziskotarraren meza barriko argazkixa orrialde honetarako aukeratu zanian be, Murgialdaiko pasadizo eta xehetasun batzuk aittatu gittuan.

Gaurkuan beste kontu batzuekin gatoz. Ezin ukatu bi bizitzako **etxetzar hori izenaren jabe** danik. Izan be, Murgixa auzo historikuan eta Ubao erreka ertzetik gora igoten dauen **aldaixaren akabera** dago eta. **Aldaixak erripa gogorra eta motza** dakoin parajak izaten dira. Oñatin eta inguruko beste herri batzuetan be agerketan xaku lekuizen hori: gurian Olabarrietan eta Torreauson, esaterako. Murgialdaik erreka aldera pendiz haundixa badako be, **etxeostian lursail zabalak eta suabiak** dittu, soro eta zelaittarako aproposak. Orain txakoliña egitteko mahastuiz beteta dagozen lurrok lehenago garixa eta punturarte artua ereitteko nahiz ganaduen larratarako ebalten ziran.

Fotografixia nun atarata daguez eztago esan biharrik: Santa Marinako plazan, **Antixena eta Madinabeitia palaziuen aurrian**, jakiña. Eguna asmatia be ezta hain gaitza: **Errosarixoko bixamonian egitten zan ferixa nagusixan**, azkenengo berrogei bat urtian aurreko zapatuan, Herri Egunian, ospaketan dana. Argazkixa **1960ko hamarkadiaren hasiera ingurukua** ei da. Sarittutako behixekin batera hemen agiri diranak honeitxek dittuzue ezkerretik eskumara: **Migel Guridi Estetxe**, Murgialdain apopillo eguala, hogetaka urtian Olabarrietako Arrazolaneko teillerixan lanian jardundakua; Oñatira gerra ostian etorri zan Aramaixotik; ondoren **Murgialdaiko hiru anaiak** datoz: **Fermin, Luxiano eta Iñaxio Galdos Urzelai**.

Iñaxioren semiak, **Aritzek**, esan dosku behi horreik **arraza suitzarrekuak** zirala, esnetarako egogixak; geruago ganadu fri-siarrak be euki zittuaila; entzunda dakola **Ospital izeneko behi batek poz haundixak** emun ostela etxeuairi ona zalako eta txapelketa danak irabazten zittualako. Harrezkero gorabehera sakonak etorri ziran: saniamendu-kontuak, arraza-alaketak, ganaduak hazteko beste ikuspegi bat, **Lana** kooperatibia, eta abar. **Azkenaldiko kanbixo sakona** ondo ezauketan dau Murgialdai ingurutik pasiauan ibiltten dan oñatiar pilliak: **etxeoko markako txakoliña egitteko mahastui ederrak**.

Fotografixia Jabier Atxa eta Luis Maiztegiren bittartez heldu xaku.
Argibidiak Aritz Galdos eta Jose Ramon Arrazolari zor dostegu. Milla esker danoiri!



COINBROKER

OÑATI

ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS



ZER ESKAINTZEN DUGU?

ASEGURU PROGRAMA PERTSONALIZATUA



BIZITZA

Benetan behar duzun bizitza aseguruak kontratatzen lagunduko dizugu.



OSASUNA

Konpainia espezializatuekin lan egiten dugu: DKV, Sanitas, Mapfre, AEGON, eta abar.



HERIOTZA

Zerbitzu osoa, berme guztiarekin eta eguneratuta. Bezeroak aukeratuko du: ehorztetxea, hilerria, aberriratzea,...



BESTE BATZUK

Beste aseguru batzuk ere egiten ditugu: komertzioak, elkarteak, komunitateak, etxekoak, eta abar.

*Jar zaitez gurekin harremanetan, eta bilera batean,
gure lan metodologia azalduko dizugu*



COINBROKER

OÑATI

ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9
20560 Oñati / Gipuzkoa



943 089006



www.coinbroker.eus



oinati@coinbroker.eus